



uk

28. zenbakia / 2002 apirila

ibilaldia 2002 getxo

maiatzaren 26 an

lotu barik



San Nikolas
IKASTOLA



Non zer

4. GU GEU
5. IRUDIA. Zaparrada udaberrian, Asier Mentxaka.
6. ELKARTASUNA. Zabalketa, behartsuenei laguntzen.
7. GURE LAGUNAK MUNDUAN. Linda White, gure lagun amerikarra.
8. PHOTO-FINHITZ. Unai Elorriaga & Mikel Martinez
9. LEHEN ETA ORAIN. Algorta, 1901-2002. Asier Mentxaka.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 18. Berango 22.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Animaliak, Portu Zaharreko bestelako auzokideak.
28. BERBETAN. Alberto Iñurrategi, oinak izarretan.
32. ERREPORTAJEA. Lemoiz, amesgaizto baten kronika. Javi G. del Herrero.
38. BIZIMODUAK. Bi metro karratutan lanean.

KULTURA


40. FOTOGRAFIA. Carlos Terrerosen erretratatuak.
44. ZINEMA. Gorka Agirre, efektu berezietan aditua.
48. MUSIKA. Erradiografia: The Painkillers; diskoak...
49. ELKARRIZKETA: Jose Angel Iribarnegarai, Kafe Antzokikoa.
50. IRAKURGAIK. Fernando Iribarnegaray, hilabete bat Bostwanan...
52. SAREAN. Internet Iker Merchán-en eskutik.
54. KOMUNIKAZIOA. TMEO umore independentea. Nabarra aldizkaria.

EUSKARAZ

56. URIBERTSOAN BARRENA. Sustrai Colinari elkarrizketa. Ipar Uribeko bertso eguna. Begi belarri eta Iñaki Benito del Valleren bertsoak. Algortako Bertsolari Eskolaren eskutik.
60. AKABUKO PUNTE. Berangoko Maria Julia Pujanagaz berbetan egon da Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoen "Gure berbakere" zutabea.
62. EUSKARA. Berriak, elkarrizketa...

AMAITZEKO


64. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa kabari buruz. Areatxu, Getxoko txoko bat. Pedro Subijana, puntako sukaldaria elkarrizketatu dugu. Non jan? Adibidez Iturgitxin. Eta pintxoak? Algortako Tabernaberrin.
70. HOROSKOPOA.
71. KOMIKIA. Gorka Vázquez
72. BERRI HARRIGARRIAK. Gaitzontzilo lasterketa historikoa.
73. FLASH BACK. Itxas-gane dantza taldea, 1965. Bittor Egurrola.
74. AITORMENAK. Aitor Gorosabel.



32 Lemoizko nuklearra




60 Akabuko punte



28 Alberto Iñurrategi




26 Albuma



66 Pedro Subijana



10 Ibilaldia 2002 Getxon



74 Aitor Gorosabel



● zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

● **Boluntzarreta**
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

● **UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / aldizkaria@euskalnet.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBERIDEA: meztzi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
e-mail: aldizkaria@euskalnet.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Javi Gonzalez del Herrero, Maitane Burusko, Itziar Bened , Urtzi Iglesias
FOTOGRAFIA BURUA: Asier Mentxaka
TESTUEN OBRAZKETA: Joseba Butron
INFOGRAFIA: Guillermo Almagia
MARRAZKILARIA: Gorka V azquez
KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurrola, Jokin de Pedro, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Unai Elorriaga, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merch n, Esti Ezkerra, Berbota eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Borta Cachorro (94 491 13 37)
FILMAZIOA: ARGIA / INPRIMATEGIA: ESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: d576-6799
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
' BOLUNTZARRETA
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen TOPAGUNE ko partaidea da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza



Itxasgane Etxea / Karitatea



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioak o

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzua dirulaguntza jaso du



Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jaso du



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

Behar-beharrezkoa da

ditugu zuen

dirulaguntza

BBK2095 0022 00 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Ale honetan

Hauxe duzue aurtengo UK-ren 2002ko hirugarren alea, hasi berria den udaberriarekin batera kaleratzen dena. Eta horregatik paratu dugu gure argazkilaria den Asier Mentxakaren lore eder baten irudia ale honetako azalean. Oraintsu ere, Euskal Herriak eman duen mendigoizale handienetako bat, **Alberto Iñurrategi**, bere hamalaugarren eta azken zortzimilakoa igotzera abiatu da Himalaia aldera. Gu ere, urrun joan gara, baina ez espazioan, denboran baizik, eta orriladeotara orain dela ia hogeitamar urte hasi zen amesgaiztoa gogoratu nahi izan dugu: **Lemoizko zentral nuklearra**. Orain, bertan, zientzia museo bat egiteko ekimena iragarri da. Gurean ere, bada ekimen interesgarririk, esaterako, maitzaren 26an egingo den **Ibilaladia 2002** (Josu Lartategi ikastolako zuzendariarekin egon gara) edo, lehenengoz jokatuko den **I. Abra Saria**, Euskal Herriko bertsolari gazteen txapelketa. Bertsolarien moduan, geldi egoten ez dakiten beste lagun batzuk Kafe Antzokiko kideak dira, Ondarrun bigarren kafe antzokia zabaldu dute, honen berri **Jose Angel Iribarnegaraik** eman digu. Eta amaitzeko, puntako sukaldariarekin elkarrizketa, oraingoan **Pedro Subijanaren** txanda izan da. Hau guztia eta gure ohizko atalak, jakina. On egin!

UK-ko lantaldea

besteekesanak

“Normala da nork bere buruaz irri egitea, oso ona eta osasungarria, baina askoz ere zailagoa da hori egitea baldin badaukazu inguruan makina bat jende zu lurpean nahi zaituena, batere graziazirik gabekoa. Egoera horretan irri egitea zailagoa da”
Jon Alonso (idazle nafarra)

“Ikuspegi kulturaletik elebakarra den pertsona, arriskutsua da; mundua zulo bakar batetik ikusten baitu, bere ikuspegi bakarretik”
Felix Marti (UNESCOren Hizkuntz Aniztasunaren Batzordeko lehendakaria)

“Gure kultura teknologia berrietatik transmititzea lortu behar dugu”
Juan José Goiriena (Eusko Ikaskuntzako presidentea)

“Anorexia arimaren gaixotasun bat da”
Alina Fernández (idazlea)

ESKUALDEKO ARGAZKI ZAHARREN BILA GABILTZA

Ohartuko zinetenez, UK-n memoriak zati garrantzitsua betetzen du. Hiru atal dedikatzen dizkiogu aldizkarian hilabetero: lehen / orain (paisaiaren aldaketari buruzkoa), berri harrigarriak (iraganeke gertakizun bitxiak) eta flashback (aspaldiko lagunarteak). Zuetako inork UK-n argitaragarria izan daitekeen irudiren baten jabe edo jakitun baldin bada, jar dadila gurekin harremanetan.

EREAGA, ALGORTA

[irudia]

Zaparrada udaberrian Ustekabean harrapatzen gaitu naturak batzuetan, errealitatearekin aurrez aurre jartzten gaitu kolpean, zera esan gura izango baligu legez: “Zer uste zenuen, ba? Udaberria egun eguzkitsua baino ez direla? Aldarte alaiak, lore usainsuak eta koloreak edonon? Bai, zera! Itzul zaitetz errealiterat! Senti ezazu milaka tantaren igurtzi bustia, hozzikararen kili-kilia. Zeure bizitzan bezala, zure ametsen bezala, jasan eta segi bizitzten, etsi gabe. Gozatu sententzio guztiekin!” / Testua: **J. B.** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Erakundea Zabalketa

12 urtez Uribe Kostan herrialde behartsuenei laguntzen

Orain dela 12 urte Uribe Kostako hamabi lagun elkartu ziren “Zabalketa” izeneko Gobernu Kanpoko Erakundea sortzeko, Peruk jaso zuen gangeri izurrite handiak kontzientziatuta. *“Zerbait egin behar genuela eta zerbait egin genezakeela ohartu eta lanean hasi ginen”* azaldu zigun Jaime Bernarrek, GKE honen zuzendariak. Gaur egun Zabalketako kideek, Perun beharrean jarraitzen duten arren, beste hainbat herrialdetara zabaldu dute euren laguntza: Mexiko, Kolonbia, Bolibia eta Nigeria besteak beste. *“Lan gehiena hemendik egiten dugu hango erakunde ezberdinen laguntzarekin baina iaz lortutako dirulaguntzei esker (guztira 130 milioi pezeta / 781.000 euro lortu zituzten), lagun batzuk hara bidaiatzeko aukera izan genuen, esan zigun Jaimek. Guztira sei izan dira kanpora joan direnak; hiru mediku Mexiko aldean dabilta txertaketa kanpaina handi bat egiten eta beste hiru laguntzaile Bolibia eta Perun daude. “Lan mota bi egiten ditugu” argitu zigun Jaimek *“alde batetik, laguntza**



Zabalketako kideak, besteak beste, garapen sozialerako programa bat egiten ari dira Peruko Andean

proiektuak, erietxeak, aterpeak... eraikitzen laguntzeko; eta, bestetik, garapen proiektuak, herrialde ezberdinen garapena bultzatzeko”. Kanpoan daudenez gain, gurean beste hamabi lagunek egiten dute lan. Gaur egun

Zabalketak 1.600 babesle baino gehiago ditu eta Jaime Bernarrek esan zigun bezala, *“Guztien laguntza behar-beharrezkoa da”*. m

Harremanetarako: Jaime Bernar 94 163 30 00



Getxotik Saharako Emakumen biltzarrara joan diren emakumezkoak Loiuko aireportuan

Saharako emakumeekin

Martxoaren 29, 30, eta 31n IV. Biltzarra izan du Saharako Emakumeen Nazio Erakundeak (U.N.M.S). Eta biltzarrean parte hartzeko aukera izan dute Europa, Afrika zein Ameriketatik Saharako errefuxiatuen kanpamenduetara joan diren delegazioek, tartean Euskal Herriko emakume talde handi batek, horrela, bertako emakumeak egiten ari diren lana eta duten indarra hurbilagotik ezagutzuz.

Erreferendum demokratiko eta argi baten bidez autodeterminazio eskubidea gauzatzea da ontzat ematen duten aukera bakarra biltzar honetan, eta horren alde bildu nahi dituzte indar guztiak, gerrarik gabe baina bakerik gabeko trantsizio garai honetan. Emakumeek partehartze handiagoa izan behar dutela arlo guztietan eta horretarako ezinbestekotzat jotzen dute prestakuntza.

Tearen aitzakian jaima barruan bilduta, jendearen jakinduria eta alaitasuna dastatu ditugu, eta egin diguten harrera ahaztu ezina izango da.

Linda White

Gure lagun amerikarra

Badirudi atzerrian euskararen inguruan jarduten dutenek arbasoak hemengoak behar dituztela izan. Linda White ditugun aurreiritzi horiek gezurrezkoak diren adibide da. Lindak ez du arbaso euskaldunik, baina beste asko bezala, gure hizkuntzak eta kulturak liluratu zuten. Orditik, euskararekin harreman oso emankorra izan du. Orain dela hamaika urte Gorka Aulestirekin batera Euskara-Ingelesa hiztegia idatzi zuen, eta gaur egun Renoko “Center of Basque Studies” gunean euskal kulturaren inguruko ikerketak egiten eta eskolak ematen ditu.



Gure Renoko lagun honi unibertsitate garaian piztu zitzaion euskararekiko grina. 70eko hamarkada zen eta bere irakasle gogokoenak euskaldunak zirela konturatu zen. Horrek euskara ikastera bultzatu zuen, baita fruituak eman ere, Euskara-Ingelesa hiztegia 1981. urtean Gorka Aulestirekin elkarlanean egin zuenean. Hau ez zen une bateko hurbiltzea izan, erabat harrapatu baitzuen euskararen mundu emankorrak eta hogeita bi urte eman ditu euskal kulturari murgilduta.

Orain dela 35 urte Renoko Euskal Mintegia sortu zuten, euskal kultura ikertu eta indartzeko xedearekin: antropologia, zientzia politika, literatura, hizkuntza eta kondaira bezalako gaiak jorratzen dira bertan. Egun Renoko *Center of Basque Studies*-en irakaslea da Linda eta hogeita bost ikaslek parte hartzen dute euren eskoletan, *“euskara arbasoen mintzoa zelako edota linguistikako interesa bultzaturik euskal kulturari buruzko doktoregoak ikastera jotzen dute”*, azaldu digu Lindak.

Hizkuntza muga geografikoen gainetik dagoela erakutsi digu bere lanarekin, zein hemen egin dituen adiskideekin. Bere bizitza euskarari eskaini ondoren eta arbaso ingeles, daniar, irlandarrak eduki arren euskal nortasuna somatzen du, itsasoaz bestalde dagoen euskaldun honek, bere barrenean. m

Harremanetarako: linda@unr.edu

[photo-phinhitz]

Argazkia: **Mikel Martinez** / Testua: **Unai Elorriaga**

Inurrien argazkiak



“Ohitura desmesuratua daukate inurriek gauzak idazteko”

Liburutegi batera joanez gero, ia gauza segurua da inurrien mundua goitik behera ezagutzen duen espezialistaren bat topatzea. Esan nahi da, liburutegietan zeozor badago, inurri-espezialistak daudela. Sarritan joaten naiz ni liburutegietara inurri espezialisten bila. Eta lehengo egunean inurri-espezialista kurioso bat topatu nuen: inurrien idatziak interpretatzen zekien inurri-espezialista horrek. Izan ere, ohitura desmesuratua daukate inurriek gauzak idazteko baina ez zaie ordenagailua gustatzen eta eskuz idazten dute eta oso letra txarra izaten dute inurriek normalean. Horregatik zen bitxia inurri-espezialista hura, inurrien testu guzti-guztiak interpretatzen zekiela.

Hala ere, badago munduan halako inurri-espezialista gehiago; hau da, inurri-espezialista batek baino gehiagok daki inurrien idatzera deszifratzen. Nik topatu nuen espezialistak, baina, beste ezaugarri bereizgarri bat zeukan: inurriek egindako argazkiak zituen. Inurrien zaletasunik handienetakoa argazkigintza da. Argazkilari profesionalak ere badaude inurrien artean. Inurri bat Kanadara heldu zen behin, batek daki nola, hango mendi bati egin nahi ziolako argazkia. Eta argazki famatua da gaur egun mendi hartako argazkia: ez argazkia beragatik, ezpada inurriak egin behar izan zuen odisea kontatzen delako argazkia erakusten den bakoitzean.

Goian ikusten den argazki hau ere inurri batek egin zuen. Horrelaxe ikusten du inurri batek Getxo eta Portugalete artean dagoen zubia. Eta bitxia bada ere, hau da gizakien aldizkari batean agertzen den lehen inurri-argazkia. Esan dezakegu, beraz, mugarria dela hau munduko aldizkarigintzaren historian.

Baina ez da hori bakarrik. Argazki honen atzean dagoen historia ere ederra da. Ze inurrik egin zuen argazkia? Zergatik egin zuen? Horixe galdetu nion inurri-espezialistari. Kontua da bazegoela Areetan inurri kirolzale bat. Larunbatero joaten zen taberna batera arratsaldeko kirol-programazioa ikustera, harik eta tabernakoa intsektizida botatzen hasi zen arte. Ez zegoen, harrezkero, taberna hartan kirolak eroso ikusterik. Hil ez zuen intsektizidak hilko, baina ezinegona sentitzen zuen inurriak. Beste taberna bat bilatzen hasi zen inurria Areetatik orduan. Ez zuen topatu. Egun batean enteratu zen, baina, Portugaleten edozein tabernetan ikusi zitekeela kirola, afizio handiagoa zeukatela.

Larunbatero joaten da Portugaletera harrezkero. Eta eszena hau ikusten du zubia gainetik pasatzen hasi baino lehen. Ostegunetan irteten da Areetatik eta larunbatetan heltzen da Portugaletera, laurak aldera. m

[lehen]



[orain]



Iraganez doa denbora* beti / ALGORTA 1901/2002

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Argazkia: **Asier Mentxaka**

Badator Ibilaldia 2002



Gero eta gutxiago falta da Ibilaldirako. Horregatik **buru-belarri** dabiltza San Nikolas Ikastolako kideak **lanean**. Antolaketa zelan doan jakiteko **Josu Lartategi** ikastolako zuzendariarekin egon gara solasean

—Zelan doa Ibilaldiaren antolakuntza?

—Nik primeran doala esango nuke. Orain arte ikusitakoa ondo atera da. *Ibilarte* erakusketak, adibidez, arrakasta handia eduki zuen; kritika eta salmenta onak eta prentsan ere garrantzi handia eman zioten.

—Maiatzaren 24rako dena prest?

—Horretan gabilta. Lan piloa dago egiteko oraindik eta arazoak sortu daitezke, noski, baina printzipioz ia dena kontrolpean daukagula uste dut. Gure kezka bakarra eguraldia da. Euriak errespetatzen bagaitu iazko zifra gainditzea espero dugu. —120.000 lagun baino gehiago izan ziren Abusun...

—Jende asko bai, baina hona metroz ere etortzerik badagoenez parte hartze handia espero dugu. Lehen esan dizudan bezala, eguraldi ona egiten badu iazko zifra gainditzea dugu helburu.

“Ibilaldiaren prestaketak gure arteko loturak sendotu ditu”

—Badaukazue leloa, ibilbidea, logotipoa, abestia... Zer falta da?

—Nik dena dagoela uste dut. Orain zorte apur bat eta jendearen partehartzea baino ez dugu behar.

—Zenbat jende dabil lanean maiatzaren 24an dena ondo atera dadin?

—Zenbatezina izango litzateke. Ehunka lagun dabiltza lanean talde ezberdinetan; horien artean ikasle ohiak, gurasoak... guztien laguntza behar-beharrezkoa da. Ibilaldiaren egunerako ere jende pilo bat jarriko dugu martxan.

—Zer da Ibilaldi baten antolakuntzak daukan alderik txarrena eta zein onena?

—Txarrena, argi dago; lan mordoa dagoela baina ni gauza onekin geratuko nintzateke; besteak beste, gure arteko loturak (guraso, ikasle eta irakasleen artekoak) sendotu egin ditu Ibilaldiak.

—Zein da Ibilaldiaren helburua?

—Betiko helburuez gain, niri gure artean lortutako elkartasuna eta dinamismoa mantentzea gustatuko litzaidake.

—Eta Ibilaldia pasatu ondoren, zer?

—Lana egongo da, ez pentsa. Gure beharra ez da 24an bukatuko. Geroago balantzea, memoria eta hainbat gauza gehiago egin beharko dira eta. m

Josu Lartategi San Nikolas Ikastolako zuzendaria ikaslez inguratutik



Maidagan pasabidearen arazoak bere horretan jarraitzen du



Metroaren ibilbideak Maidagan kalea zeharkatzen duen gunea

Metroko linea zabaldu zutenetik urteak pasatu diren arren, Maidagango pasabideak auzokideen artean arazoak eta eztabaidak pizten jarraitzen du. Eta, dirudienez, gatazkak ez du konponbide erraza. Bizkaiko Foru Aldundiak pasabidea lurperatzeko proposamen ezberdinak jaso dituen arren (azkenekoa joan den martxoan), Garraio Saileko Diputatua den Jose Félix Basozabalek, gaur egun behar horiek egiteko dirurik ez dagoela adierazi du behin baino

gehiagotan. Lan honen inguruan egin duten aurrekontuaren arabera, 8'29 milioi euro beharko lirateke pasagune eztabaidatu hau lurperatzeko. Basozabalek esandakoaren arabera, metroaren bigarren lineako lanak amaitu arte, ez dute Maidaganeko pasagunea lurperatzeko proposamenik kon-tuan hartuko. Baldintza hori betetzen ez den bitartean, Bilboko Metroak, pasabideak dituen Europa osoko metro bakarra izaten jarraituko du. m

“TIKO”K ETA LAISEKAK EUSKAL SELEKZIOEI BURUZ BERBA EGINGO DUTE GETXO ANTZOKIAN

Apirilaren 25ean arratsaldeko zortzietan Getxo Antzokian, “Ibilaldiri adi” kanpaina barruan, euskal selekzioen gaiaren inguruan eztabaidatuko da euskaraz izango den mahaingurua. Jabotxa Fernandez kazetariak moderatzaile lanak hartuko ditu. Esan bezala, partaideen artean Roberto Laiseka txirrindulari bizkaitarra eta Roberto Martínez Ripodas, *Tiko*, Athleticeko jokalaria egongo dira. Azkeneko honen iritzia bereziki interesgarria izan daiteke, gehien bat orain, Iruñeako jokalaritza trebeak Espainiako selekzioaren lehenengo deialdia jaso eta gero.



OLATX

altzariak

Andres Larrazabal, 11 AREEITA
T. : 94 464 89 94

Jauan Bautista Zabala, 5 ALGORTA
T. : 94 491 13 94

prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

VASA

20º ANIVERSARIO URTEURRENA

KLIMATIZAZIOA
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Villa de Plentzia, 18 behea
48930 Las Arenas | Getxo
Bizkaia

Tel.: 94 464 51 66
Fax: 94 480 54 70
e-mail: vasa@euskalnet.net

Kirola Getxo Futbol Taldea

Nahiz eta emaitzei dagokienez **taldea** bere unerik onenean ez egon Getxoko Futbol Taldeak badu zer ospatu **aurten**. Izan ere, **75 urte** betetzen ditu talde honek


Urteurren berezi hau ospatzeko klubak egoitza berria estreinatu berri du urtarrilean Algortako Karitate kaleko Itxasgane Etxean. Teknologia berriak aprobeztatzuz ere, Getxo Futbol Taldeak web orri txukuna sortu du: www.cdgetxo.com

Sareko helbide horretara jotzen duenak klubeko historia ezagutzeko aukeraz gain, taldeari buruzko argibide guztiak (aurtengo denboraldiko emaitzak, berriak, sailkapen historikoak...) eta hainbat informazio eta eduki gehiago (solasgunea, argazkiak, jokoak) ezagutzeko aukera izango du.

Gaur egun, Getxo Futbol Taldea ez dago bere unerik onean; erregionaleko lehenengo mailan 13. postuan sailkatuta eta arazo handiekin partiduak aurrera ater ahal izateko. Egoera ez da zaletuek itxaroten zutena edo, taldearen historia ikusita, espero zezaketena. Hirugarren mailara igotzeko helburuarekin hasi zuten denboraldia baina azaroan, 17. postuan sailkatuta zeudela, entrenatzailea eta helburuak aldatu behar izan zituzten.

GETXO FUTBOL TALDEA

- Noiz sortu zuten: 1927
- Koloreak: horia eta beltza
- Presidenteak: Fernando Fresno
- Taldeko entrenatzailea: Eneko Mezo
- Futbol zelaia: Fadura (1954an eraikia)
- Neurriak: (103x68m)
- Ikusleak: 3.500 (1.000 jesarleku)
- Web orrialdea: www.cdgetxo.com



Getxo Futbol Taldeko nagusiak Faduran, trebatze lan egun batean

Entrenatzaile gaztea

Gaur egungo entrenatzailea Eneko Mezo da; Glean, Amurrion (Blas Ziarretarekin, bigarren entrenatzaile bezala), Eibarren eta Badajozen ibili den eskarmentu handiko gaztea. Berak taldearen egoera larria eta sailkapen txarraren arrazoia argitu zizkigun. *“Oso jende gaztea dugu eta lehiakortasun falta dute. Maila hauetan tinkotasun horren falta garesti ordaintzen da”*. Hala ere, eta datorren urteari begira, klubak taldea sendotzeko asmoa dauka iraganeko lorpenak laster errepika daitezen.

Klub historikoa Bizkaian

Getxo Futbol Taldea 1927an eratu zuen Algortako lagunarte batek. Geroago, 1954an, orduan presidentea zen Angel Astorki Elustondok, Fadura futbol zelaia eraiki zuen Athleticen dirulaguntzarekin.

Nork esango zien lagun haiei talde hark 75 urte iraungo zuela. Atzean historia luzea geratzen da. Zaharrenek oraindik gogoratzen dituzte momentu historikoak; Athleticen aurkako partiduak, igoera bigarren mailara... Etorkizun hurbil batean errepikatu daitezkeen lorpenak, datorren urterako asmoak betetzen badira. m



www.cdgetxo.com webgunean taldearen argazki historikoak ikus daitezke

Michel Camilo pianojole handia Jazzaldiko izarretako bat izango da



EGITARAUAREN AURRERAPENA

Uztailak 3

Miroslav Vitous, Michel Portal eta Mino Cinelu

Uztailak 4

Willem Breuker Kolletief

Uztailak 5

Enrico Rava eta Paolo Fresu

Uztailak 6

Lehiaketaren talde irabazlea eta **Michel Camilo**

Uztailak 7

Iñaki Salvador

Kontzertuak Algortako Biotz Alai eta Getxo Antzokiko plazetan izango dira

Musikazaleen pozerako, Getxoko Jazzaldia hurbilagoa dago eta arduradunek kalitate handiko egitaraua prestatu dute uztailaren 3tik 7ra bitartean, egingo den jazz musika festarako. Nazioarteko mailan izen handia lortu duten artistek hartuko dute parte aurtengo edizioan. Besteak beste azpimarratzekoa da Michel Camilo piano jole eta musikagile dominikarrak eskainiko duen kontzertua. Camilok urteak daramatza musika konposatzen eta jotzen eta gaur egungo artista nagusietako bat izateaz gain, izar

handia bihurtu da Estatu Batuetan, Kariben zein Japonen. Beste alde batetik, Europako 16 herrialdeetatik etorritako 70 taldek hartuko dute parte Jazzaldiaren barruan egiten den Talde Lehiaketan. Urtero egiten den bezala, jaialdian hiru motatako kontzertuak eskainiko dira: emanaldi nagusiak; taldekako lehiaketa kontzertuak (hauek Bihotz Alai plazan izango dira gaueko 21:30etatik aurrera); eta jazz banda gazteeanak. Azkeneko hauek Getxo Antzokiko Plazan 19:30etatik aurrera. m

Ibilaldiari adi hainbat ikuskizun euskaraz



Ibiladia dela eta, “Ibilaldiari adi” programa abian jarri dute antolatzaileek. Programa honen barruan, ADOS TEATRO taldeak euren lan berria, “John Wayneren laguna”, aurkeztuko du datorren apirilaren 19an eta 20an, arratsaldeko zortzietan Getxoko Antzokian. Obra, adimen urritasun arina duen gizon batek bizitzaz duen ikuspegia jorratzen du, umorez eta xamurtasunez. Bestetik, apirilaren 30ean, XARANEL taldeak “Kulunka munduari bira” txistu eta euskal dantza eskainiko du Getxo Antzokian.

AGENDA

Antzerkia

Apirilak 19 eta 20, 20:00, Getxo Antzokian “Ibilaldiari adi” kanpaina barruan, ADOS TEATROaren “John Wayneren laguna”.

Apirilak 26, 19:00, Getxo Antzokian, Erandioko BONBOLINAK konpainiaren eskutik, “Mujer en la ventana”.

Apirilak 27, Algortako kaleetan zehar, 13etatik aurrera, “Ibilaldiari adi” kanpaina barruan, HORTZMUGA taldearen “Rekolore” kale ikuskizuna.

Kontzertua

Apirilak 27, 20:00, Areetako Andrés Isasi Udal Musika Eskolan Pio Lindegaard-en omenezko kontzertua, Bruce Barth Quartet taldea.

Zinekluba

Apirilak 18, 20:00. Areetako Gran Cineman “Y tu mamá también”.



Apirilak 24, 20:00, Getxo Antzokian “Sin noticias de Dios”.

Apirilak 25, 20:00 Areetako Gran Cineman “Sin noticias de Dios”

Bertsolariak

Apirilak 19, 19:00, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, “Ibilaldiari adi” kanpaina barruan, F. Paia, U. Agirre, A. Estiballes eta N. Elustondo bertsolariekin besteak beste. Txistua eta Euskal Dantzak

Ikuskizuna

Apirilak 30, 20:00, Getxo Antzokian “Ibilaldiari adi” kanpaina barruan, XARAMEL taldearen “Kulunka munduari bira” txistu eta euskal dantza ikuskizuna.

Txakolina uste baino biziago

Berpizte garaian dago txakolina, Leioan Bizkaiko Txakolinaren museoa zabalduko dutela ikusirik. Leioan oraindik ere bada **edari bikain** eta bitxi hau egiten duenik eta **Francisco Atxalandabaso** dugu horietako bat

Txakolinak ez dio zertan inbidiarik eduki Errioxako ardo gorriari, Gipuzkoako sagardoari ezta Nafarroako patxaranari ere. Hasiera batean etxerako edari bezala egiten bazen ere, egun goi mailako edarien artean lehiatzen da

Mahastiak Bizkaiko paisaiaren adierazgarri izatera heldu dira eta Leioak ere bere iraganean mahastiak izan zituen. Gaur egun gehienak desagertu badira ere, azkenengo hamarkadetan berreskuratzen ari direla sumatu daiteke. Bilakaera honen emaitza aurrerapausotzat hartu behar dugu; ez zaio bakarrik kantitateari begiratu behar, kalitate aldetik aldaketa sakona egin baita. Honek ekarri du txakolina etxeko edari izatetik merkatuan ere presentzia izatera heltzea.

Honen guztiaren inguruan berba egiteko Francisco Atxalandabaso leioztarrarekin bildu ginen, bera da-eta gure herriko txakolin ekoizleetako bat. Orain dela hamabost urte lagun batek zirikatuta Francisco ardo mota honen munduan sartu zen eta jakin-mina asetzeko jarduera izaten hasi zena, egun bere bizitzako zati garrantzitsu bihurtu da. Franciscok haurtzaroko garaiak gogoratuz txakolinaren lehengo ospe txarra gainditu dela azaldu zigun: *“Ume nintzenean aitita-amomak mahatsa zapaltzen ikusten nituen txakolina egiteko. Orduko edariak ez zeukan gaur egungo txakolinarekin zerikusirik, garratza eta ozpindua izaten zen”*.

Prozedurak aldaketak izan dituela ez dago ukatzerik eta horrek emaitzan eragin zuzena dauka. Bakoitzak badauka bere erre-zeta eta, jakina denez, kontu hauek ezkultuan gordetzen dira. Franciscok prozesu



Francisco Atxalandabaso Leioako bere mahastietan

osoa azaldu eta trukoren bat ere argitu zigun. *“Nik txakolina egiten dut eta gero ‘pitikina’. Horregatik hasieran mahatsa gutxi prentsatzten dut, txakolin gutxiago lortzen da,*

“Lehengo txakolinak ez zeukan egungoarekin zerikusirik, garratza eta ozpindua zen”

baina hobea da. Eta gero pitikina, hau da, hondakinak eta ura nahastuz egiten dudan ardoa ere hobea da”.

Franek ziurtatu zigun gero eta jende gehiago hurbiltzen ari dela txakolinaren mundura eta gazteak geurea den edari eta tradizio batekiko ardura erakusten hasi direla. Atxa izena eman dio Franek bere txakolinari, eta Leioako erreferente bat dugu. ^m

2003AN LEIOAKO TXAKOLINAREN MUSEOA

XVII. mende amaierakoa den Mendibile baserriak, gaur egun arte, hots, historian zehar izan duen bilakaera anitza da. Bere baitan Leioaren iragan historiakoaren elementu bereizgarri ezberdin asko bildu dira. Eraiki zenean familia biko luxuzko baserria zen. Orduetik XX. mendean hainbat etxebizitzatan banatu ondoren, gaztetxe ere izan zen. Egun, behin berriztatze lanak hasita, gero eta hurbilago dugu Bizkaiko Txakolin Etxea izango dena. Produkzioari buruzko eraikin tematikoa bilakatuko da Mendibile, kanpoko egitura mantendu arren barrukoa berrantolatuta. Honi laguntzeko, baserriaren inguruan belardia egingo dute.



Leioa Mendi Taldea.

Aurten 10. urteurrena ospatuko dute

Gure herrian mendizaleok badugu zale-tasun honi lotzen gaituen topagunea. Ez da egitasmo berria, orain hamar urte jaiotako ideia baten emaitza baita. Hasiera batean herriko lagun talde bat biltzen zen honen inguruan eta euren lehenengo urrats haiek “ameslari talde” bezala gogoratzen dituzte.

Hamar urte hauetan egindako ibilal-diek natura gertutik ezagutzeko parada eman die eta era berean euren artean harreman sendo eta osasuntsua eratu. Hau dela

eta euren hamargarren urteurrenean ome-naldi berezia egingo dute. *“Ezaguna dugun apaltasunetik ospakizun ponposorik egiteko asmorik ez dugu. Baina nola edo hala zerbait egitea merezi duenez argazki lehiaketa antolatu dugu urte osorako”*. Lehiaketa bat izateaz gain Leioa Mendi Taldeak egindako ibilaldi luzearen ispilu izango den erakus-keta ere izango da. Hamar urte hauek bihotzean gorde eta etorkizunera begirada zabaltzeko aukera paregabea dugu. ^m

OTEIZAREN LAN BAT IPINIKO DUTE HERRIAN

Egun hauetan Oteiza eskultore handiaren inguruan zeresan asko zabaldu da. Baina gu ez gara kontu horietan sartuko, Leioari begira gaudenez, oriotar honek gure herriarekin daukan harremanaz arituko gara. Udalak Oteizaren garai espresionistan egindako eskultura bat erosi berri du. Zazpi metro inguru edukiko duen artelana etorkizuneko Kultur Etxearen parean kokatuko da. Eskurapen hau ez da bakarra, baina bai adierazgarriena. Oteiza Leioara egindako bisitan oso pozik agertu zen eskulturak edukiko duen ingurua dela eta. Izan ere, José Ramón Aketxe eta Errekalde plazen artean oinezkoentzako gunea egin nahi dute. Gurean Oteiza bat edukitzea ez da huskeria bat!

Eskultura jarriko duten ingurua



36 kilo plataforma

etxebizitzaren aldeko
taldea eratu da Leioan

Gaur egun arrazoi ezberdinak direla medio etxebizitza eskuratzea gero eta zailagoa da. Prezioak gora doaz etengabe. Arazo honen aurrean leioztar talde batek euren ezadostasuna adierazi eta irtenbideak aldarrikatzeko plataforma berri bat martxan jarri dute. “36 kilo” dauka izena, hori baita Leioan etxebizitza bat batez beste kostatzen dena. Egitasmo berri honek ikerketa sakon bat egin ostean egoera aztertu eta irtenbideak bilatzea du helburu. Datuek argi erakusten dute etxebizitza bat lortzeko jasan behar dugun egoera larria. Esate baterako, Leioako etxebizitzaren %12 hutsik dago. Plataformak lau eskaera aurkeztu dizkio Udalari, baina ez du bere ekintza erantzukizun instituzionalera soilik mugatu nahi. Izan ere, herriko lagun, erakunde, elkarte eta talde guztien arteko eztabaida zabala lortzeko asmoa dute. Herri mailako mugimendu indartsua pizteko 4.000 sinadura baino gehiago biltzeko kanpaina bat abian jarri dute. m

Leioan etxebizitza bat batez beste,
36 milioi pta. kostatzen da



Gero eta gehiago dira Artatza jauregian ezkontzea erabakitzen duten bikoteak

Artatza jauregian ezkondu

Azken bi urteotan 103 bikotek **sinatu** dute bere **maitasuna** Artatzan. Eskaera **gora** doa eta udalak neurriak hartu behar izan ditu

Ezkontzeak ez du zertan errito erlijioso batekin loturarik eduki behar gaur egun. Arrazoiak hamaika izanik bikote askok euren maitasuna ekitaldi zein dokumentu batean islatuta ikusteko nahia agertzen dute. Orain gutxi arte eliza batean ezkontzeari uko egiten zioten bikoteek aurkitzen zuten alternatiba nagusia aseptikoa eta funtzionala zen. Hain zuzen ere, herrietako Bake Auzitegi edota Udaletxeetan egiten ziren ospakizunek kutsu ofiziala hartzen zuten. Horri aurre egiteko gaur egun ezkontza zibilen itxura gero eta gehiago zaintzen da eta horren adibiderik hurbilena Leioako Artatza Jauregia dugu.

Orain dela bi urte Udalak Artatza jauregian ezkontzeko aukera eskaini zuen. Erabaki honek erabat aldatu zuen ezkontza zibilen panorama Leioan. Izan ere, 1996tik 1999ra bitartean 37 bikotek euren maitasuna sinatu zuten Udaletxean eta Bake Auzitegian. Baina orduz geroztik zifra hau haziz joan da eta azken bi urteotan 103 bikotek Artatza Jauregiko alterna-

tiba aukeratu dute. Horrenbesteko harre-
ra ikusirik Udalak hainbat neurri hartu ditu jauregian ezkondu ahal izateko. Esate baterako, ekonomikoak eta leioztarren lehentasuna.

Lehen ez bezala norbera da erabakitzen duena ezkondu ala ez, kontuan izanik gaur egun asko direla ezkontzen ez direnak. Errito erlijiosoaren arabera ez egiteak ez du esan nahi arrunckerian erori behar denik eta Artatza Jauregiak ederto erakusten du. m



Pop-rock

lehiaketa antolatu du Udalak
musika eta **talde berriak** bultzatzeko

Musikaren munduan barneratzea da gazte askoren ametsa. Hala ere, ez da ibilbide erraza eta, batez ere, disketxeen merkatuari begirada bat ematen badigu. Horregatik oso aukera ona eskaintzen du Leioako udalak bigarren aldiz deitu duen Pop-Rock lehiaketa antolatuta. Iazko arrakasta ikusirik ekitaldi honen antolatzaileek proiektu honekin aurrera egitea erabaki dute, bertan gazte askori euren ahaleginak eta aurrerapenak erakusteko aukera emanez. Izena emateko epea irekita dago jadanik. Kontuan hartzea da, ordea, apirilaren 26a baino lehenago aurkeztu beharko dela gutxienez 5 kanta biltzen dituen maketa edo CDa. Iaz hiru modalitate ezberdin antolatu baziren ere, aurtengo edizioan bi izango dira. Pop-Rock eta Metal musika estiloen garapenerako bidea mantentzea erabaki duten arren “tendentzia berriak” izenekoak alde batera uztea erabaki da iazko lehiaketan eduki zuen arrakasta espero baino txikiagoa izan zelako. Apirilaren 26aren ostean hiru modalitate horietan banatuko dira taldeak eta lehiaketari hasiera emango zaio. Sari ekonomikoaz

gain bi estiloko garaileen artean garaile irten den taldeak sari berezia jasoko du: ekainean Leioako jaietara datorren taldearen aurretik jotzea. Beraz, gogora ezazue musikaren gailurrera iristeko bidea ez dela arantzarik gabeko arrosa, baina aukera ederra da honelako ekitaldietan parte hartzea. Aurreko deialdian hogeita hamar talde aurkeztu ziren eta aurtengoan zifra hau gaitzea espero dute antolatzaileek. Beraz, gogora ezazue musikarekin hitzordua duzuela apirilaren 26a baino lehen. Bidali zeuon maketak Aterpe Leioa Gazte Bulegora. m



AGENDA

Umore azoka

Apirilaren 30- maiatzaren 2
Umore Azoka. Leioako kaleetan zehar 20 estrenaldi baino gehiago, 30 taldetik gorako parte hartzea, clownak, akrobazia, zirkoa...

Mendi irteerak

Apirilaren 21: **San Milán**
Maiatzaren 5: **Liguardi** 1.967 m
Maiatzaren 19: **Alkurruntz** 934 m
Leioa Mendi Taldea

Zineforuma

Asteartero 22:00etan
Leioako Kultur Aretoan
Apirilaren 23, **Joserra Basterra**
“Teddy Baster” etorriko da.
Apirilaren 30, **Mario Pardo**.
Maiatza **Kevin Spacy** aktore estatu batuarrari eskainiko zaio. “American Beauty”, “Sospechosos habituales”... ostegun eta ostiraletan hurrenez hurren.

EUSKARAREN TELEFONOA

Leioako Euskara Zerbitzua: **94 400 80 44**



BILBOMICRO

1982az geroztik
soluzio infor-
matikoak

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO / Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIE -

RRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

Berbotsu maskotari jarraiki

Ehunka euskaltzale bildu ziren euskal hizkuntzaren aldeko **Kanpamartxo** jaian, Erandio euskalduntzeko apustua berretsiz

Euskaraz berba egin, euskaraz dantzatu, euskaraz bazkaldu, euskaraz jolastu, euskaraz antzeztu, euskaraz barre egin, euskaraz gozatu, euskaraz... bizi ahal izan ziren erandioztarrak egun batean, Kanpamartxo jaiaren gerizpean. Berbots taldeak egin zuen gonbitari erantzunez, ehunka euskaltzale hurbildu ziren martxoaren 24an Asuako Eskolara, azken 10 urteotan sustraituz joan den euskal festa ospatu guran, Berbotsu maskota alaitsuaren eskutik.



Egitarauari hasiera emateko Erandioko dantza taldeek erakustaldia egin zuten



Uztargi, Goi-Alde eta Trabudu taldeetako dantzariak dotore jardun zuten.

«Kanpamartxo jaia, Erandioko giro erdaldunean euskaraz bizitzeko guneak irabazteko berreskuratu zuen Berbots-ek orain dela hamar urte»



Dotore ere jardun zuten Altzaga Ikastolako Bertso Eskolako ikasleek, mikrofonoa eta taula partekatzea egokitu zitzaientean Ainhoa Agirreazaldegi, Gorka Ostolaza eta Etxahun Lekue bertsolari gazteekin.



Umeak leku batetik bestera, gora eta behera, puzgarrian saltoka, soka batetik tiraka, futboleant, ezkutuka ibili ziren. Harik eta Bilboko espaziotik Hartz Muga antzerki taldea agertu zen arte, bere espazio-ontzi eta bere bi martetarrekin. Orduan bai, orduan ume guztiak bildu ziren Asuako Eskolako patiora.



Dantzatuz eta abestuz, bazkaltzeko ordua iritsi zitzaient bildutakoak. Menua, talo, otarteko edota indaba gorriak. Eta, halako aukeran, gehienek indabak nahiago izan zituzten, sargoria gorabehera.



Egun osoan zehar Kanpamartxo euskaltzaleon elkargunea izan zen.



Berbots-en lema begibistan egon zen.



Halaxe zegoen jendea, eguzkitan, etzanda, edota txosnan erromeria noiz hasiko itxaroten. Gustura, oso gustura. Ur Gabe taldea agertokira igo eta, orduan bai, eguerdian ez bezala, gazteak izan ziren nagusi euskaltzaleon elkargunean, musikariei begira beti.



ALGORTA
dj.ak
antzerkia
erakusketak



Negubide 13
Tel. 94 463 61 82
AREETA



jateko

urdaitegia • frutadenda • elikagaiak
Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

Bertoko musika tresnak

Urteak dira **Musika Eskola** martxan hasi zenetik, baina oraintsu arte bertoko musika tresnek ez dute lekurik izan. lazko otsailean antolatu zuten lehenengoz trikitixa **ikastaroa** eta aurten panderoari ere egin diote leku

Pandero eta soinu txikiaren doinuak entzuten dira bariku arratsaldetan Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Hantxe dabilta hauspoari eragiten Irati, Jorge, Pedro, Ander eta Erika eta panderoa menderatu nahian Marisol, Julen, Olatz eta Irune.

Trikitixa eta panderoa gure inguru honetan ezagutzera ematea dutela helburu diosku Idoia Markaida irakasleak. 22 urteko bakiotar hau hamabi urterekin hasi zen trikitixa jotzen. Gerora panderoarekin ere hasi zen, eta orain hor dabil, batetik bestera, dakiena besteei irakasten: Bizkaiko Dantzarien Biltzarrean, Bilboko hainbat ikastolatan, eta Mungia, Bilbo nahiz Erandioko musika eskoletan.

Musika tresna hauek apur bat ikasteko ordu asko sartu behar dutela esaten die ikasleei, bi edo hiru urte beharko dutela soinu txikiarekin, eta gutxienez urte bete panderoarekin moldatzeko. Hori bai, euren aldetik nahikoa entsaiatuz gero; bestela, jai dutela. Baina trikitixa bat erostea garestitxoa da eta ikasten ari direnek oraingoz ez daukatenez, zailago egiten zaie. Eskola orduak ondo aprobetxatu behar dituzte.

Ikasleen artean badira batzuk beste musika tresnaren bat jotzen dutenak edo solfeo dakitenak, esate baterako taldeko gaztetxoena den Irati. Iratik soinua (akordeoia) jotzen du, eta orain hasi da soinu txikiarekin.

Pedro eta Jorge iaz hasi ziren, eta zera diote: *“Orain badakigu trikitixa menpera daitekeela, baina kontua da denbora asko behar dela, eta argi izan behar duzula honetan buru-belarri sartu nahi duzula”*.



Argazkian, Idoia Markaida irakaslea (ile beltza daukana) ikasleez inguratutik

Pandero ikastaroan, lau baino ez direla taldean eta lan asko egiten ari direla esan digu Idoiak, gero bakoitzak bere aldetik egin behar ditu “etxeke lanak”.

“Irakaslea Idoia Markaida bakiotarra da; hainbat ikastolatan, Bilbo, Mungia nahiz Erandiko musika eskoletan irakasten du”

Irakasleak berak jotako trikitixa doinuak grabatu eta zinta bana eman die ikasleei etxean entsaiatzeko. Ikasleek diotenez, eskolan landutako piezak jarraitzeko gai baino ez dira oraindik, bestelakoetan galdut egiten omen dira.

Zer dela eta hasi ziren panderoarekin galdetu eta haxe erantzun digute.

Marisol: *“Errazena zelakoan hasi nintzen, baina ez pentsa hain erraza denik, panderoak badu berea”*.

Julen: *“Semea akordeoia jotzen ikasten ari da eta egunen batean trikitixa joko duen itxaropena badudanez, dirua eskatzeko beste lagun bat baino ez dugu behar izango plazarik plaza ibiltzeko”*.

Esan bezala, pandero eta soinu txikiaren doinuak entzuten dira bariku arratsaldeetan Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Hantxe dabilta hauspoari eragiten Irati, Jorge, Pedro, Ander eta Erika eta panderoa menderatu nahian Marisol, Julen, Olatz eta Irune. ^m

Lebis Abarka artisaua

Orratza haria eta narrua

“Orratza, larrua, haria eta zulatzeko tresna; besterik ez dut behar bizitza aurrera ateratzeko”

Lebis Abarka **eskulana** lanbide bihurtu duen Kukularrako **erandioztarra** dugu. Artisautzan 17 urtekin hasi zen eta narrua lantzen egin du **bizitza**. Solasean egon gara bere etxeke tailerrean eta haxe da esan diguna

—Zelan hasi zinen artisautzan?

—Egia esanda, kasualitate hutsez. Mikel eta Marian “Abraxas”ko artisauak haien haurrak jagoteko pertsona bilatzen zebiltzan eta lan hori egiteko prest agertu nintzen euren etxean. Haurrak jagoten hasi nintzen Mikel eta Marianek etxeke gela batean zeukaten tailerrean lan egiten zuten bitartean. Denboraz lan txikiak egiten irakatsi zidaten eta horrela sartu nintzen ofizio honetan.

—Egun horretatik hona 20 urte joan dira...

—Bai. Hortxe eman nituen lehengo urratsak. 18 urterekin nire lehenengo narrua landu nuen 2.000 pezetetan erosi, eta landu eta gero 4.000tan saldu nuen. Etekin handirik ez baina niretzat zoragarria izan zen. Diru apurraz pozik nintzen eta orduan hasi nintzen kalek kale, herriz herri, nire narru lanak saltzen.

—Herriz herri eta mundu osotik ezta?

—Osotik ez, baina ibili ibili naiz behintzat. Gazte eta abenturazale ere Veneziara joan nintzen narru mozorroak saltzeko asmoz, saldu ez nuen gauza handirik saldu, baina Veneziako aratusteak ezagutu nituen. Geroxeago Ibizara joan nintzen bizitza egitera eta zorte handiz irlako narru tailer onenatariko batean hasi nintzen soldatapeko lanean. Ondoren, lankidetzat proiektu bat garatzen, bi urte egon nintzen Bolibian. Narru tailerra antolatu eta abian jarri genuen. Boliviatik itzuli eta Kukularran etxeke tailerra jarri genuen.

—Ipurdia ezin geldi edukirik...

—Horrez gainera, bost urtetan uda sasoian Ibizara joaten nintzen hango denda batean zapatak egitera eta udazkenean etxeke lantegian gabonetako azoketan saltzeko materiala prestatzera.



—Zergatik artisautza lanbide bihurtu?

—Nire ustez, lanbidea baino bizimodua da. Artisautzak nahi dudanean, nahi dudana lekuan, nahi dudana egiteko aukera eskaintzen dit. Batzuetan ondo eta beste batzuetan estu, jaberik izan barik eta independentzia mantenduz pozik bizi naiteke artisau gisa.

—Izan ere azken bolada honetan ez duzu bizimodu hori izan?

—Egia da. 1998tik lantegi okupazional batean egiten dut lan irakasle moduan, baina narruak berak eraman nau hezkuntza mundura. Lehen Bolivia, geroxeago ikastolatan eta hainbat udalerritan eman ditut ikastaroak, eta oraintxe bertan gizarteratze prozesuan arazoak dituzten pertsonekin lan egiten dut. Dena den, artisau lantegian jardun dut ekoizten duguna zaintzen eta lana antolatzen. Nik artisautzat jotzen dut neure burua. Kutxila, orratza, larrua, haria eta zulatzeko tresna besterik ez dut behar bizitza aurrera ateratzeko. ^m

35 urtean ezkontuta

Garbiñe Bidaurrezaga “Karabiazpi erretiratuen elkarte”ko presidentea da eta “Argazkiak: 35 urtez ezkontuta...” duela gutxi arte Berangoko Kultur Etxean ikusi ahal izan den erakusketaren **bultzatzailea**

“Berangoztarrok elkar ezagutzeko aukera ematen duelako egin dut erakusketa hau”

—Zerk bultzatu zintuen erakusketa hau egitera?

—Neu naiz, batez ere, erretiratuen elkarte-ko ekintzak prestatzen dituen eta herri guztiarentzat interesgarria izan zitekeen zoz-zer egin gura nuen. Gai polita iruditu zitzaidan argazkitan biltzeko eta lanari ekin nion.

—Lan handia izan da, ezta?

—Bai, oso handia. Denbora nahiko behar izan dut, udazkenetik hain zuzen ere. Ordutik hona etxez etxe ibili naiz erretratu

“Etxez etxe ibili naiz erretratu bila, eta askok lagundu arren, ezer jakin gura izan ez duenik ere egon da, noski. Guztira 122 familiaren laguntza jaso dut”

bila, eta askok lagundu arren, ezer jakin gura izan ez duenik ere egon da, noski. Guztira 122 familiaren laguntza jaso dut. Hasiera batean, hogeita bost urte zeramatzenen argazkiak biltzeko asmoa nuen, baina hauen eta hogeita hamabost urte eman dituztenen artean bikote ugari dago eta honek lana bikoiztu egin zezakeen.

—Antzeko erakusketarik egin duzu aurretik?

—Bai, beste bitan ere egin dut horrelakorik. Behin, Berangoko laurogei urte baino gehiagokoen argazkiak bildu nituen eta, beste behin, elkarte-ko bazkide eta euren familienak. Horrelako erakusketek Berangoztarrok elkar ezagutzeko aukera ematen dutela uste dut.



Goian, Garbiñe Bidaurrezaga; orrialdeotan, erakusketan ikusi ahal izan ziren irudietako batzuk

—Badaukazu ideia berririk buruan?

—Ez, momentuz ez; oso lan nekagarria izan da eta orain, aurten elkarte-ko egingo ditugun irteerak eta ekintzak prestatzearekin badaukat lan nahikoa; baina nork daki...

—Zelako ekintzak egiten dituzue elkar-
tean?

—Gehien bat, hitzaldiak eta irteerak eta urtean txokolatada bi prestatzen ditugu... Eskulanak eta ez ditugu egiten jendea ez delako animatzen. Iraila aldera, bazkari bat ere egiten dugu gura duten guztientzat. Iaz 190 pertsona bildu ginen. m



Euskal Herriko

Bestelako gaiak
Drogak
Politika
Bidaia
Osasuna
Sexualitatea
Munduko literatura

Alangoeta 8
(Euskal Herria kalearekin bat) Tfn.: 94 491 23 79

basur-
to
algorta

telletxe 15, algorta
T: 460 71 62 - 460 42 44

foto
xabier

argazkiak

Doctor Landa z/g
Tfno. 94 676 03 09
SOPELA



4 bide pinturak





Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA

Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

BISITATU GURE DENDA!





350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4

ALGORTAKO AZOKA

48990 ALGORTA

TF. 94 491 18 82

[berango]

Berangoko txirrindulariak

Gaztetxoen txirrindularitza **denboraldia** hastear dagoela, gure herriko **taldea** hobeto ezagutu gura izan dugu. Berango Txirrindulari Elkarteko presidentea den Enrique Fernándezek taldearen **berri** eman digu



Enrique Fernández entrenatzailea eta taldeko txirrindulari batzuk

Udaberria heldu eta eguraldi ona hasten den egun hauetan, gure errepideak bizikletariz betetzen dira. Jakina baita, bai, Euskal Herri osoan txirrindularitzan dagoen zale-tasuna. Eta Berangon ere, noski, kirol honen maitaleak badaude. Horren lekuko da Berango Txirrindulari Elkartea.

1998an, txirrindulari amateur gisa ibilitako Berangoko lau lagunek txirrindulari elkarte bat sortzea erabaki zuten. Eurek, gustuko duten kirola egiten hasi zirenean, inguruko herrietara joan behar izaten zuten eta uste zuten Berangoko gaztetxoek aukera eduki behar zutela euren kirolaz herrian bertan gozatzeko. Honela, eskola maila guztiak biltzen dituen taldea osatu zuten.

Hasierako urte hartan, hamaika gazte ibili ziren Berango elkarteko elastikoa jantzita; aurten, hamazazpi dira. Izan ere, eta elkarteko presidentea den Enrique Fernándezek dioskunez, *“Herrian zaletasun*

handia dago eta badirudi umeak gero eta gehiago animatzen direla. Nahiz eta herri txikia izan, ziurrenik, inguruko herrietako taldeetan baino ume gehiago daude gurean pedalei indarrez eragiten”.

Berango txirrindulari elkarteak Bizkaian egiten diren probetan parte hartzen du eta horretaz gain, hainbat lasterketa ere antolatzen ditu, baita eskola mailakoak ez direnak ere: iaz lehenengo aldiz jokatu zen “Ricardo Otxoa sari nagusia” eta aurten ere abuztu aldera jokatuko dena; Santa Ana jaietan egiten diren kadete eta aipatu eskola mailako lasterketak eta baita gure artean oso ezaguna ez den trialsin proba bat ere.

Urte gutxi dituen taldea dugu hau, baina pixkanaka handitzen doa, bai presidentea eta baita entrenatzaileak ere gogotsu daudelako eta baita Udala eta herriko enpresa baten laguntza dutelako. m

«**Aurten, hamazazpi dira herriko koloreak Bizkaia osotik erakusten eta defendatzen dituzten txirrindulariak**»

[berango]

Kultur etxe berria

irailean zabalduko da Santa Ana auzoan



Kultur Etxea Santa Anako eskola zaharra zegoen tokian egongo da

Azken urteotan begibistakoa da Berangon bizztanle kopuru handituz doala, eta honi lotuta hiri-zabaltzea ere nabarmena dela. Honen ondorioz, Udala eta Kultur Etxearen zentroak eta zerbitzuak ugaltzeko beharra ikusi du Udalak. Egoera honi aurre egiteko, irailean, kultur etxe berri bat zabal-tzea erabaki dute udaletxean.

Kultur etxea, Santa Anan egongo da, bertoko eskola zaharra zegoen eraikinean, hain zuzen ere. Lokalak 200m karratu ditu eta hainbat ekintza egin ahal izango dira

bertan; besteak beste, ikasketa gelak egongo dira eta gazteenek lantegi berriak egiteko eta pailazo eta ipuin kontalarien saioak, antzerki txikiak... bezalako ekintzekin gozatu ahal izateko guneak izango dituzte.

Proiektu honekin, herriaren erdian ez dauden auzokideek kultur etxea hurbil eduki ahal izango dute. Baina, aurrerantzean, hau ez da izango auzo hauetako herritarrek izango duten abantaila bakarra, Udalaren asmoa, hiringuruko auzoetara zerbitzu gehiago hurbiltzea baita.. m

AGENDA

Erakusketak
Apirila, 2-14ra, erakustaretoan:
Yasmina Alonso “Oleoak eta eskulanak”
Apirila, 15-28ra erakustaretoan:
José Alberto Ubierna “Uhartean”

Umeentzako zinea
Apirilak 28, areto nagusian, 17:30
“Manuelita”

Irteera
Apirilak21, igandea, Gasteizera irrist egitera. Izena emateko epea: apirilak 18.

Udaberriko festa
Apirilak 27, larunbata, pilotalekuan, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00etara: Udaberriko festa (Haur parkea eta txu-txu tren)

Ludoteka
Txiki-ludoteka: 3-8 urte bitartekoentzat (euskaraz). Lanegunetan, 16:30etatik 18:30etara. Tailerrak: eguenero.
Ludoteka: 9-14 urte bitartekoak. 18:30etatik 19:30etara. Tailerrak: eguenero

Berangoko Kultur Etxea
94 668 21 43

irakurzaletenokoa

Bitartean Heldu poema liburua
gitarra baten soinuak eta margolariaren lanak lagundutako ikuskizun ederra

Kirmen Uribe, Txomin Uribe eta Josu Aranbarri



Non > Itxas-gane etxea
(Karitatea 1, Algorta)

[albuma]



Bestelako auzokideak

Gure artean bizi dira, gizakien artean. Portu Zaharreko deserrian? Batzuk ez, batzuk oso ondo asmatu dute euren erara bizitzen, gure artean baina gugandik aparte. Ez dute harremanik nahi gu lako piztia arraroekin. Beste batzuek, ostera, gure arreta eskatzen dute: begirada bat, hitz goxoren bat edo beste, laztanen bat, beharbada. Bai piztia bitxiak gizakiak!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



[berbetan]

Alberto Iñurrategi Euskal Herriak inoiz eman duen mendizalerik handienetarikoa da. 18 urte daramatza eskalatzen eta denbora horretan hamahiru “zortzi mila” egin ditu. Munduan 14 zortzi mila baino ez daude. Hamalaugarrena, Albertori falta zaiona, Himalayako Annapurna da; orain han dago bera. Igotzen badu, aparteko talde baten partaide bihurtuko da, gaur arte zortzi mendizalek baino ez baitute lortu munduko hamalau tontor garaienak zapaltzea.

Alberto Iñurrategi

Oinak izarretan

Testua: **Javier G. del Herrero** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

—Nolakoa da ezagutzen ez dugun Alberto Iñurrategi?

—Ba, ez dakit. Hori ingurukoek esan beharko luketela uste dut. Niri, behintzat, ez zait erraza egiten neure burua definitzea.

—Baina zure bertuteak eta akatsak zeintzuk diren esan dezakezu, ezta?

—Beno, bai; oso lotsatia naiz, langilea, kirolzalea...

—Mendiaz gain, zeintzuk dira zure zaletasunak?

—Bizikletaz ibiltzea izugarri gustatzen zait, eskiatzea... Egan egitea ere gustatuko litzaidake, baina sekula ez dut pausu hori eman, arriskutsua iruditzen zaidalako agian. Baina gustatuko litzaidake aladelta edo parapentea egitea.

—Noiz hasi zinen eskalatzen? Zergatik?

—Hamabost bat urterekin hasi nintzen. Umetan, garai haietan behintzat, ume guztiei gustatzen zitzaigun mendiko materialak esku artean erabiltzea. Ilusio pixka bat ematen zigun horrek. Gaur egun, ordea, nik ez dut umerik ikusten arboletara igotzen, eskola ondoko lubetan gora edo aldamiok igotzen, baina garai haietan nik uste dut gazteok beste modu batekoak ginela. Agian, orain astirik ez daukatelako (internet, solfeo, ingelesa eta beste hainbat zeregin dituzte), baina orduan denbora gehiago geneukan jolas egiteko eta jolas horien artean arbolak igotzea eta ahuntzak bezala ibiltzea izaten ziren jolasetako batzuk. Hortik hasita, gero kobazuloetan ibiltzera pasatu ginen eta han soka erabili beharra izan genuen, geroago arnesak eta poliki-poliki mendiko materialaren ezagutza hori izaten hasi ginen.

—Gogoratzen duzu zein izan zen zuen

lehenengo irteera gogorra?

—Bai, 1989an Yosemite. Horren aurretik, Alpeetan egon ginen eta geroztik, urtero Himalayara.

—Zu mendizale profesionala zara. Zaila al da horretatik bizitzea?

—Ni profesionala? Erratuta zaude. Ni ez naiz profesionala eta gehiago esango dizut, ez dut ezagutzen honetaz bizi den inor; Euskal Herrian behintzat ez. Hemen nork bere lana dauka eta horrez gain bidaiak egiteko finantziazioa bilatu egin behar du. Eta ez da erraza izaten nahiz eta ezaguna izan.

—Zelan prestatzen da espedizio bat? Zaila al da?

—Bai; lan handia eta sekulako ahaleginak eskatzen ditu. Batez ere, beste lan batzuetan ibilita, denbora libre guztia exijitzen dizulako: materialak lortzeko, dirua lortzeko...



—Mendira joaten zarenean, zer da gehien gustatzen zaizuna; bidaiaren antolaketa, mendia igotzea, herrialde ezberdinak ezagutzea...?

—Antolaketa hori gustatzen zaionik oraindik ez dut ezagutzen. Batera joan, bestetik etorri eta azkenean etxean egoteko denbora

mendizaleren erantzunik ere entzun. Mendizaletasuna oso kirol ederra da; aberastasun handikoa baina alde txarra badakigu zein den; askotan parean tokatzen zaizkigun istripuek sekulako mina ematen dutela. Baina beste aldetik, aitortu behar da mendizaletasuna arriskutsua ez balitz,

“Mendizaletasuna arriskutsua ez balitz ez luke xarma hori izango; arriskua da zirrara eragiten diguna”

gutxi. Nekatu egiten du lan horrek. Azkenean mendia da gustatzen zaiguna eta tarteko hori egin behar delako egiten da.

—Zelako prestaketa jarraitzen duzu? Nolakoak dira zure entrenamenduak?

—Nire kasuan behintzat, denborarik ez dudanez izaten, etxetik hurbil entrenatzen saiatzen naiz, mendira joan gabe. Nor-

bada, ez lukeela xarma hori izango. Arriskua da zirrara eragiten diguna.

—Anaia G2an galdu zenuenean mendira joateari uztea pentsatu zenuen?

—Ez dakit. Oso une gogorrak pasatu nituen eta suposatzen dut momenturen batean burutik pasatuko zitzaidala horrelako erabaki bat hartzeko ideia. Zalantza handi-

“Ni ez naiz profesionala eta ez dut ezagutzen Euskal Herrian honetatik bizi den inor”

malean bizikletaz ibiltzen naiz, korrika egiten dut eta entrenatzaileek egiten dizkidaten entrenamendurako programak ahalik eta zintzoen betetzen saiatzen naiz.

—Dieta berezirik jarraitzen duzu ere?

—Ez. Kirolari guztiok saiatzen gara gehiegi ez jaten baina nik, behintzat, ez dut dieta berezirik egiten.

—Zeintzuk dira mendizale bihurtzeko eta mendian bizitza jokatzeko arrazoiak? Ziur galdera hau egin diozula inoiz zeure buruari.

—Horren erantzuna oso zaila da. Nik ez dut oraindik konbentzitu nauen beste

ko momentuak ziren, gauzak ez nituen garbi ikusten eta argi neukan denbora behar nuela erabakiak hartzeko.

—Gaia aldatuz, noiz hasi zinen ETBn? Zelan sortu zen “Oinak izarretan” saioa egiteko ideia?

—Ideia aspaldikoa da, baina arrazoi ezberdinengatik ezin izan genuen aurrera atera 1999ra arte.

—Nori bururatu zitzaion?

—Anaia eta biona izan zen ideia; Himalayatik kanpora ere ibiltzeko oso aukera polita zela iruditu zitzaigun eta, gainera, gu beti irudiari lotuta ibili izan gara mendian

“Mendizaleok oinak izarretan ditugula esan daiteke”

(bai argazkiak egiten edo baita, 1995etik aurrera, bideoan filmatzen) eta bagenuen programa bat sortzeko ideia, beti ere mendian jarraitzeko aitzakiarekin.

—Eta titulu eder hori?

—Beno, ba azken finean mendizaleok horrela gabiltzalako izan daiteke; leku zailetan egiten dugu bide eta berezi xamarrak gareladiote, beste ikuspegi bat hartzen dugu eta oinak izarretan ditugula esan daiteke.

—Orain arte nora bidaiatu duzue saioarekin?

—Besteak beste Nepalen, Pakistanen, Yosemiten, Malin eta Jordanian egon gara. Irteeratxo batzuk egin ditugu.

—Noiz arte jarraituko duzue saioarekin? Eta mendiak igotzen?

—Auskalo. Bi urte daramatzagu honetan eta orain dela gutxi azkeneko saioa emititu da. Orain hirugarren sail bat filmatu nahian gabilta, eta ea lortzen dugun.

—1997tik 1999ra “Al filo de lo imposible”n ibili zinen. Gustuko duzu telebista ala?

—Bada, lehen esaten nizun moduan, mendizale profesionala izateko aukerarik ez dagoenez, mendia gustatu eta mendian ibili nahi izanez gero, behintzat, beste bide batzuk bilatu behar dira. Telebistak gustatzen dudana egiteko aukera ematen dit.

—Kamara aldean ibili zara, ezta?

—Bai, kamara txikiekin eta gure mailan, baina ondo konpontzen naizela uste dut. Ez naiz profesionala (ez dut sekula kamara ikastarorik egin) baina irteeretan ibili gara kamara profesionalak direnekin eta gu ere saiatu egin gara. Azkenean beti ikasten da zerbait.

—Epe laburrean zeintzuk dira zure hurrengo proiektuak; zeintzuk izango dira zure hurrengo igoerak?

—“Oinak izarretan” saioarekin jarraitzen badugu, Nepal, Txina eta Afrikara bidaiatuko dugu grabatzera. Hori da gure asmoa, behintzat. ^m

LABUR-LABUR

Izena: Alberto Iñurrategi

Jaioterria: Aretxabaleta

Adina: 33 urte

Inoiz egin duzun igoerarik zailena:

Kangtxenjunga (Nepal)

Unerik txarrenak mendian:

2000ko uztailak 28

(bere anaia Felix, G2ko jaitsieran hil zen eguna).

Unerik onenak:

Onenen zerrenda oso luzea izango litzateke.

Bueltatzeko mendi bat: G2

Nora ez zinateke bueltatuko: K2ra

Hautzaroko irudi bat:

Lehenengo Jaunartzea egin nuenean zigarro bat erretzen gurasoen aurrean.

Kantari bat: Van Morrison

Film bat:

Ez naiz film batekin maitemintzen den horietakoa.



“Felix mendian galdu ostean oso une txarrak pasatu nituen, baina mendia uzteko moduan egon nintzenik ere ez nuke esango”

NABARRA

Euskal Herri osoan!

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN
30 euro urte osoa (12 aldizkari)
948 22 71 25
nabarra@nabarreria.com

Lemoizko amesgaiztoa 1970an hasi zen Iberdueroren bulegoren batean. Zentrala eraikitzeko lanak lau urte gero-ago hasi ziren eta zortzi urte behar izan ziren Iberduerok obrak geldiarazi zituen arte. Azkenean, 1994an, Espainiako gobernuak zentrala betiko zarratzea erabaki zuen. Euskal gizarteak 25 urtean zehar jasan izan behar zuen amesgaizto luze baten bukaera izan zen.

Lemoiz

Amesgaizto baten kronika

Testua: **Javier G. del Herrero** / Argazkiak: **Asier Mentxaka & Euskal Herriko Komite Antinuklearrak**

Aspalditik hutsik dagoen Lemoizko zentral nuklearra, *Atlantida* izeneko zientziaren hiriburu bihurtzea du helburu Bizkaiko Foru Aldundiak. Han zientzia, teknologia, ingurugiroa eta energiaren museo bat, erakusketak, Nestor Basterretxea eskultore bermeotarrak diseinatutako eraikuntza harrigarria eta hainbat erakustaldi gehiago egongo bide dira. Proiektu honen sortzaileek zentrala barrutik erakusteko bisitak ere antolatu nahi dituzte. Atlantida proiektuak 72 milioi euroko aurrekontua du eta aurrera aterako balitz, zientzia hiriburu hau 2006an zabalduko litzateke. Baina, zer gertatu zen Lemoizko zentralarekin? Zergatik eraiki zen? Zentral nuklear bat altxatzea arrisku-tsua zela argi zegoen lanak hasi baino lehen. Urteetan zehar fronte guztietan mantendu zen borroka geldiezinak prezio altua eduki

zuen. Azkenean, lanak bukatu ziren arren, zentrala ez zen inoiz martxan jarri eta luza-roan hura zaintzen han egon ziren poliziek, alde egin zuten. Gaur egun, Lemoizko zentrala hutsik dago, isilik, iraganeko mamu erraldoi bat izango balitz bezala.

Hasiera 1974an

Armintza atzean utzi eta Lemoizko zentral nuklearrera hurbiltzen garen heinean, beste mundu ezberdin batean sartzen ari garela ematen du; isilagoa, bakartiagoa... Itasoaren ondoko labarren ondoan gauden arren, basamortuan gaudela dirudi. Zentraleko urtegi erraldoietara, arrainen bila hurbiltzen diren kaioen urubiak, dira, noizean behin, isiltasun handi hau urratzen duten zarata bakarrak. Egora negargarrian dagoen kostaldeko errepidetik aurrera egi-

ten dugun heinean, albo bietatik munstroak adi begiratzen gaitu eta ia ezinezkoa da ez gogoratzea inguru bakarti horretan (zibilizaziotik hain hurbil eta hain urrun aldi berean) aspaldi gertatutako zorigaitzeko gertaerak.

Lemoizko zentrala eraikitzeko proiektua 70eko hamarkadaren hasieran jaio zen. Ideiaren aita Iberduero enpresa izan zen eta hasiera batean alderdi politiko gehienen onespena eduki zuen, herritarren artean zentralaren aurkako jarrera oso nabarmena zen. Gatazka luze baten hasiera zen. Lemoizko zentrala eraikitzeko lanak 1974an hasi ziren eta urte hartako uztailaren 25ean ETAk zentralaren aurkako lehengo atentatua egin zuen indar handiko lehergailu bat jarriz eraiketa lanak egiten zituen enpresaren arduradun baten autoan.



«Lemoizko zentral nuklearra garaiko 130.000 milioi pezeta baino gehiago kostatu zen. 900 MW-ko lau erreaktore zituen»



«150.000 sinadura baino gehiago jaso ziren zentrala eraikitzearen aurka»



Lau data historiko

- 1972ko maiatzaren 23an Energia Zuzendaritzak Lemoizko zentral nuklearra eraikitzeko baimena eman zion Iberduerori.
- Zentralaren eraikuntza 1974an hasi zen.
- 1982ko maiatzaren 12an eraikuntza lanak behin-behinekoz gelditu ziren.
- 1983ko urrian, borroka luze baten ostean, Gobernuak zentralaren irekiera atzeratzea erabaki zuen.
- 1994ko ekainaren 3an Lemoizko zentral nuklearra behin betiko itxi zen.



Hilabete bat geroago, abuztuaren 29an, herri mugimendua martxan jarri zen Plentziatik Gorlizera egindako manifestazioarekin. 50.000 lagun batu ziren kostaldeko herrixkan Lemoizko zentralaren aurka. 1977ko udan beste manifestaldi erraldoi bi egin ziren Bilbon eta abenduan, ETAkidea zen David Alvarez Peña, Guardia Zibilekin izan zuen tiroketa batean hil zen.

Lemoizko zentralaren aurkako taldeek lanean jarraitu zuten. 1978an herri gehienek euren talde antinuklear propioa zeukaten eta leku askotan talde bat baino gehiago zegoen. Baina Lemoizen, Basordako hondartzan, eraikuntza lanak ez ziren gelditu. Hurrengo urteetan ETAk 250 ekintza baino gehiago egin zituen zentrala eta zentralaren alde lan egiten zuten enpresa eta pertsonen aurka, ondorio larriekin. Euskal gizartearen gehiengoa ekintza hauen aurka zegoen arren, nekez ulertzen zituen zentrala eraikitzeko argudioak eta manifestaldiak gero eta ugariagoak eta arrakastatsuagoak ziren. Horietako batean, 1979ko ekainaren 3an, Tuteran, Gueardia Zibilak Gladys del Estal ekologista hil zuen.

Ia urte bat geroago, 1980ko maiatzean, Euskal mendizaleek ikurrina eta ikur antinuklearra ezarri zituzten Everesteko tontorrean, zentralaren aurkako borroka are gehiago internacionalizatuaz. Jose María Ryanen bahiketa eta hilketak (1981eko urtarrilean) eta handik gutxira bonba bat zeramala ETAkide baten heriotzak, egoera are gehiago larritu zuten. ETAre azkeneko ekintza hau salatzeke egin zen greba orokorrak jarraipen handia eduki zuen Euskal Herrian. Edozelan ere, urte hartako otsailaren 10ean, Iberduerok zentralako eraikun-



Zenbatu ezinak dira Lemoizko zentralaren aurka egin ziren agerraldiak eta martxak

“Garai hartako agintari politiko gehienak nuklearraren aldekoak ziren”

tza lanak geldiarazi zituen. Bi egun geroago Eusko Legebiltzarrak lanak berriz hasteko eskatu zion Iberduerori. Eta lanak jarraitu zuten 1982ko maiatzaren 5ean, ETAk eskolta zeraman Lemoizko proiektuaren zuzendaria hil zuen arte. Handik aurrera zentralako teknikoez, egoera konpontzen ez zen bitartean, lana alde batera uztea erabaki zuten eta hilabete hartako 12an Iberduerok lanak epe gabe geldiarazi zituen Espainia eta Eusko Jaurlaritzaren kontrako iritziak kontuan hartu barik. Geroago ospakizunak

(kontzertuak, martxak, erakusketak, eta abar) hasi ziren nahiz eta urte asko pasatu behar izan ziren 1994ko ekainaren 3an Espainiako Gobernuak zentrala betiko zarratzea erabaki zuen arte.

Azkenean munstroa inoiz ez zen martxan jarri, baina Lemoizko herriak egunero gogoratzen du izan zitekeena, izan zena, Basordako hondartza begiratzen duen bakoitzean. Han, amesgaizto bat izango balitz bezala, zentralak zutik dirau... m




Lemoizko zentralaren aurkako pegatina mordo atera ziren, hauek haietako apur batzuk baino ez dira

GAROÑA Arriskua gugandik 100 kilometrora

LEMOIZKO zentrala aspaldi itxi zuten arren, arrisku nuklearra gugandik hurbil daukagu gaur egun. Izan ere, Uribe Kostatik ehun kilometrora estatu osoko zentral nuklearrik zaharrena dago: Garoña. Santa María de Garoñako haranean (Burgos). Ebro ibaiaren ondoan kokaturik, hau da, Arabarekin muga eginez, zentral honek


30 urte baino gehiago daramatza martxan eta denbora horretan asko izan dira gertatu diren ur erradioaktibo isuriak, arraildurak eta mota guztietako istripuak. Arriskua begibistan dagoen arren, CSNak (Consejo de Seguridad Nuclear) eta Espainiako Gobernuak ez dute zentral nuklear zahartu hau ixteko asmorik azaldu.



Iberduero enpresaren arabera, guztira 250 ekintza eta sabotaje baino gehiago egin ziren zentralen lan egiten zuten erakunde eta pertsonen aurka

Bi metro karratutan lanean

Testua: **Javier G. del Herrero** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Javier Bilbao gidaria “Espazio falta baino, lanaldi luzea da gure arazoa”

Getxokoa da Javier Bilbao eta 35 urte ditu. Hauetatik 15 eman ditu herrian bere taxia gidatzen eta jarraitzeko asmoa dauka: *“Jarraitu behar, ez dago beste biderik!”* esan zigun bere autoko leihatilatik beste auto bat aurreratzen zuen bitartean. Taxi geltokian, lanean, harrapatu genuen Javier, baina egunkaria alde batera utzi eta atsegin handiz erantzun zituen gure galderak. *“Hemen gaudenean, itxaroten dugun bitartean, asko irakurtzen dugu; irakurri, irratia entzun...”*. Leku estu batean egoitearena ez da arazoa Javierrentzat: *“Ez pentsa denbora guztia hemen sartuta nagoenik. Lanik ez daukagunean, itxaroten dugun bitartean, autotik ateratzen gara, hankak luzatzeko... Hala ere, ezin gara autotik, lan lekutik, gehiegi urrundu”*. Lan honek dituen alde onei buruz galdetu genionean, Javierrek irribarrez erantzun zigun: *“Ez dakit lan honek ezer onik daukan. Edozelan be, lan honetan leku falta baino lan baldintza txarrak dira arazo handiena. Ez daukat lana aldatzeko asmorik, baina aldatzekotan lan ordu asko direlako egingo nuke”*. m



Mari Carmen de la Banderadaria “Udan, beroa egiten duenean gogorra egiten da sukalde txiki honetan lan egitea”

Basaurikoa da Mari Carmen, 33 urte ditu eta hiru daramatza sukaldari Algortako Amezi kalean dagoen *Txiki-aundi* tabernan. Pintxoak berak prestatzen ditu; 20 mota ezberdin egunero. Nork esango luke tabernako sukalde txikitxo ikusita. Aretoa tabernako beheko solairuan dago eta bost metro karratu baino ez ditu. Han egiten du lan emakume jator eta trebe honek. *“Sukalde handiago bat nahiago nuke baina dagoenarekin konpondu behar”*, azaldu zigun Mari Carmenek zartaginak alde batera utziz. Galderak egiten genizkion bitartean, Mari Carmenek sukaldea erakutsi zigun. Egia esan ez zegoen gauza handirik erakusteko, labea, sukaltarria, supazterrak eta armairuak bost metrotan pilatzen baitira. *“Dagoeneko ohituta nago baina udan, beroa egiten duenean, gogorra da hemen lan egitea, lurpean, arrautzak egosten edo frijitzen”*. Baina dena ez da txarra eta Mari Carmenek argi dauka zein den behar honen alde ona. *“Bezeroek egindako lana eskertzen dizutenean, egitiko izerdi guztia ahaztu egiten da”*. m

Euren lantokiek lau metro karratu baino gutxiago neurtzen dute. Espazio nemiño horietan ematen dute egun osoa lanean, ezin dira apenas mugitu eta jakina, ez dira klaustrofobikoak. Bizimodu hau ezagutzeko, baldintza hauetan behar egiten duten lagunengana jo dugu.

Alberto Lubiñe saltsailea “Ez dut leku gehiagorik behar, gustura nago”

Gaztea zenean futboleko jokatzear gain, entrenatzailea eta caddia izan zen Alberto Lubiñ. Golf gustukoa zuen baina Industri Maisu izateko ikasi zuen eta horretan ibili zen langabezian gelditu zen arte. Gero, denetarik egin behar izan zituen bizi irauteko; *“Arrautzak etxex etxe banatzen ibili nintzen, Algortako ‘Ijito’ enetan lorontziak saldu nituen, Arrietara hondartzako txiringitoan egon nintzen beharrean... Hamaika lan eginak ditut nik bizitzan”*. Azkeneko hamabi urteak Getxoko kiosko honetan eman ditu. Hasieran kostatu zitzaion arren, laster bezeroekin harreman onak egin zituen eta gaur egun gustura dabilela dio. *“Aspaldian, aldatuko nukeela esaten nuen, baina orain ez nuke lan hau utziko. 60 urte ditut eta, beraz, nagusiegia naiz lanaz aldatzen ibiltzeko”*. Kioskoak hiru metro karratu baino ez dituen arren (*“Ea udalak handiago bat ematen dion!”*, bota zuen bezero batek), Albertok ez du klaustrofobiarik sentitzen. *“Soldaduskan hilabete oso batez ziega txiki batean zigortu ninduten. Eskarmentu horrekin zelan izango naiz ni, ba, klaustrofobikoa?”*. m



M. Josune Bego lapoi saltsailea “Behin sekulako euri zaparrada bota zuen eta lau lagun sartu ginen kiosko barruan”

Urdulizen jaio eta Urdulizen bizi baina Algortan egiten du lan Miren Josunek; Telletxe kalean ONCE elkarteak duen kioskoan. *“Kioskoa, txabola... nahi duzun bezala deitu diezaiokezu ‘kutxitril’ honi”* kexatu zitzaigun. 31 urteko neska alai honek 12 urte daramatza ONCEn lan egiten, beti Algortan eta beti kiosko berean. *“Eguraldi ona egiten duenean kalera ateratzen gara baina eguraldi txarrarekin hemen egon behar. Lan gutxiago dago eta, beraz, askoz luzeagoa egiten da eguna”* azaldu zigun. Metro karratu bakarreko eraikuntza honetan gauzak korapilotu egiten dira. Lekua ondo baino hobeto aprobetxatuta dago Miren Josuneren mostradore nemiñoan, irratia, telefono mugikorra... pilatzen dira. *“Mugikorra kargatzen jarri ahal izateko, makurtzeko, txabolako atea zabaldu behar da”*. *“Behin sekulako euri zaparrada bota zuen eta lau lagun sartu ginen. Ikustekoa izan behar zuen, lau lagun mugitu ezinik hemen barruan”*. m




[fotografia]




KOKO, 1999



EL CAMARON DE GRANADA, 2000



TXOLIN, 1998



ALVARO, 1996



JORGE, 2001




AUTOERRETRATUA

Erretratuak

Carlos Terreros


Gaztea bada ere, duela hamar urte hasi zen Carlos Terreros (Getxo, 1972) argazkigintzan. Hastapenetako bere argazkietan *skatea* zen motibo nagusia; izan ere, kirol hau bere pasioa da. Gaur egun gainera, "Erosión" kirol honi buruzko aldizkariaren arduradunetako bat da. Baina skateari buruzko argazkiak ez ezik, beste era bateko fotografia ere gustuko du, intimistagoa (erretratu hauek honen adibide dituzue). Bestetik, Carlosek sari batzuk irabaziak ditu, esaterako Bizkaia Maitea, Leioako diapositiba lehiaketa... Algortako Irudi Taldeko kidea ere bada. Apirilean zehar Bilboko *Nasch* tabernan (Simón Bolívar kalean) argazki hauek ikusi daitezke.




LABE GARAIETAKO LANGILEA, 2000



BILBOKO JAIK, 2000



TXABI PATINATU OSTEAN, 2002



ALFONSO, 2002

Gorka Agirre

efektu berezietan aditua

Arlo horretan Euskal Herrian dagoen **profesional** bakarra da Gorka Agirre getxoztarra. Orain Bilbon eskola bat sortzeko **asmoa** darabil esku artean



Goian, Gorka Agirre berak egindako panpinez ingurutaturik. Ondoko orrialdean, bere lanetako batzuk.

Gorkaren lana ezin da azaldu; ikusi egin behar da. Eta ziur zuetako askok ikusi duzuela, Getxoko gazte honek hainbat ira-garki (Moviestar, McDonalds eta Repsol-enak, batzuk aipatzearren) eta pelikulatan lan egin du eta; Eduardo Bajo Ulloaren *El hombre ubicuo*-n, Tinieblas Gonzálezen *Por un infante difunto*-n edo Koldo Serra eta Gorka Vazquezen *Amor de madre* film laburretan besteak beste, beti filmaren efektu bereziak egiten. Bera da arlo honetan Euskal Herrian daukagun profesional bakarra. “Profesional onenak Bartzelonan eta Madrilen daude, baina Estatuan zaila da honetatik bizitzea eta zinea egiteaz gain, publizitatea eta beste gauza batzuk ere egin behar dira. Hemen ateratzen diren film gehie-

nek ez dute efektu berezirik apenas eta aurre-kontuak eta denbora eskasak dira beti” azaldu zigun Gorkak. Gazte honek 29 urte ditu eta horietatik 13 daramatza efektu bereziak

“Argiztapena, zuzendariaren lana eta dekoratuak gure lana bezain garrantzitsuak dira; gurea ikusgarria izan dadin euren lanek ere onak izan behar dute”

sortzen. “Autodidakta naizela esan genezake. Gustukoa eduki ditut beti gauza basati hauek, beldurrezko pelikulak ikusten hasi nintzenetik, baina ez hemen ezta Estatuan

ere, zaila da lanbide hau ikastea. Nik liburuak eta aldizkariak erosi eta neure kabuz lan eginez heldu naiz honaino”. Eta ez da gutxi: orain dela lau urte Gorka profesional moduan hasi zen beharrean eta efektu bereziak sortzeaz eta asmatzeaz gain (adibidez, arma arma sare simulatuak sortzeko makina bat asmatu du) eskolak ere ematen ditu. “Bilboko Beldurrezko Zinemaldian ikastaro ezberdinak eman ditut azkeneko hiru urteotan eta lortutako arrakasta ikusi ondoren eskola bat sortuko dugu Bilboko Tivoli kalean. Ikastaroak hiru hilabetekoak izango dira, hiru egun astero eta hiru ordu egunero eta protesiak, zauriak, tiroak, eta hainbat gauza gehiago egiten ikasiko dute ikasleek”. m

Harremanetarako: 657 77 06 76



Labur-labur

—Zure maisurik onenak...
—Tom Sabini (*Viernes 13*, *La matanza de Texas*), Dick Smith (*El exorcista*), Rick Baker (*Men in black*) eta KNB enpresa (*Abierto hasta el amanecer*).

—Film baten efektu berezi bat aukeratu beharko bazenu...
—*Un hombre lobo americano en Londres*-en agertzen den gizon otsoaren bilakaera aukeratuko nuke. Ez dauka infografiarik eta filmak urte batzuk dituen arren, nire ustez, geroztik ez da hori bezalakorik lortu.

—Film baten efektu berezi bat baztertu beharko bazenu...
—Luis Vargas Llosaren *Anakonda* filmeko efektu berezi gehienak. Efektu digital ugari erabiltzen dira baina nabarmenegiak dira.

—Efektu berezi onak lortzeko zer da ezinbestekoa?
—Argiztapena, zuzendariaren lana, dekoratuak... Gure lana ikusgarria izan dadin euren lanek onak izan behar dute”.

—Hurrengo proiektuak...
—Buru-belarri nabil eskolaren proiektuarekin. Horrez gain film labur bat eta bideoklip batzuk egin behar ditut. Kaliforniara ere joan nahi dut *animatronik* ikastaro bat egitera. m

Oscar sarien inguruko bitxikeriak

Urtero egiten den legez, joan den martxoaren 24an Hollywood-eko, sariak emateaz gain, hainbat bitxikeria gertatu ziren, baina zeremonia hauetan aurtengoak baino gauza harrigarriagoak gertatu dira inoiz



D. Washington



Halle Berry



A Beautiful Mind filmeko irudi bat

- 1 – 1943AN GREER GARSON** aktoresak inoiz egin den hitzaldirik luzeena eskaini zuen. Ordu bat baino gehiago eman zuen eszenatokiaren gainean eskerrak ematen. Gaur egun protagonista bakoitzak bi minutu inguru ditu eskerrak emateko.
- 2 – BEHIN BAINO EZ DA GERTATU** Oscarren historian. 1945ean Barry Fitzgerald birritan nominatu zuten lan berberagatik; protagonista eta sekundario bezala *Siguiendo mi camino* filman egindako lanari esker. Azkenean bietariko bat irabazi behar eta sekundariorik onenarena lortu zuen.
- 3 – “COWBOY DE MEDIANOCHE”** film zoragarria 1970ean X kalifikatu zuten Estatu Batuetan. Hil batzuk beranduago pelikula onenari emandako Oscarra irabazi zuen.
- 4 – MARLON BRANDONEK** 1973an Oscarra irabazi zuenean *El padrino*-n egindako lanari esker, neska indiar bat joan zen bere partez saria eskuratzerara eta idazki bat irakurri zuen indiar amerikanoen egoera eta zineak ematen zien tratua salatzeke.
- 5 – MERYL STREEP** aktoresak 1980an Oscarra irabazi zuen *Kramer contra Kramer* filman egindako lanari esker. Saria eskuratu, baina geroago komunean ahaztu zuen.
- 6 – AKTORE BAT BAINO** gehiago nominatuta izan da hil ostean baina bakar batek eraman zuen Oscarra, Peter Finch-ek 1997an *Network; un mundo implacable* filman egindako lanari esker.

Ikus dezakezuenek, UK-kook aurreko alean egin genuen kiniela ez dator bat Los Angeles-eko Kodak Theatren emandako sariekin. Guk euren logikari jarraituz egin genuen kiniela. Baina, antza, Hollywooden ilogikotasuna da nagusi.

Oscarrak, UKren kinielak huts egin du

	Gure kiniela	Sarituak
Filmik onena	“A beautiful mind”	“A beautiful mind”
Zuzendaririk onena	Ridley Scott	Ron Howard
Aktorerik onena	Russell Crowe	Denzel Washington
Aktoresarik onena	Renée Zellweger	Halle Berry

web orrialdeak

www.cineytele.com



Kartelera, berriak, zine jaialdien agenda... Diseinu aldetik *cineytele* ez da oso ikusgarria baina baditu lotura bitxi ugari, bereziki interresgarriak zinearen profesionalak direnrentzat.

www.decine.com



Estreinaldiak, pelikulen kartelak, fotogramak, datu tekniko eta artistikoak, sinopsiak... Hau da *decine* web orrialdearen eskaintzarik onena, baina badi-tuzte kritikak, berriak, loturak...

www.elcine.com



Bilatzaile ona eta atal ezberdinak: kritikak, estreinaldiak, zurrumurruak... Honez gain, *elcine*-n Oscar eta Goyei buruzko behar den informazio guztia. Web ona den arren, *elcine*, itxurazko orrialdea ere bada.

Oporretara EGUNKARIArekin! Pentsatu al duzu nora joan nahi duzun?

Itsas bidaia



Praga



Kuba



Tunisia



Tenerife



Motxila dotore hau opari

Jasotzen ditugun lehen 200 plantillen bidaltzaileei motxila dotore hau opari egingo diegu.



Munduaz gozatzeko

Apirilaren 21etik aurrera erosi EGUNKARIA. Mundua ezagutzera gonbidatuko zaitugu!

Babeslea:



webgida

EUSKAL MUSIKA TRESNAK
>www.txistulari.com

Euskal Herriko soinu-tresnei eta bereziki txistuari buruzko behar diren datu guztiak (historia, eboluzioa, ikasbideak...) eta lotura ugari (musika elkarteekin, Euskal Herri osoko dantza taldeekin, musika aldizkariekin eta web orrialde euskaldunetara) dira web orrialde eder honen ezaugarriak.

Hizkuntza: euskara

DENETARIK
> www.euskal.cjb.net

Loturak euskal rock talde ezagunen web orrialdeekin ("Skalariak", "Su Ta Gar", "Berri txarrak", "Koma", "Betagarri" eta "Urtz" taldeen web orrialdeekin besteak beste) eta informazio asko. Musikaz gain, euskaltxoko-k euskal futbol selekzioaren eta lehenengo mailako euskal taldeen web orrialdeetara joateko aukera eskaintzen digu.

Hizkuntza: euskara



Erradiografia



Alvaro Heras, Txus Alday, Jon Iturbe, Iñigo San Cristobal eta Alvaro Segovia

The Painkillers


Izena: *The Painkillers*. **Nondik dator izena?** Ingelesezt, analgesikoak (batez ere, opiazeoak) esan nahi du. **Jaio ziren:** 1999ko udan. **Nongoak dira:** Getxokoak. **Taldeko kideak:** Bost; Jon Iturbe (ahotsa), Alvaro Segovia (gitarra), Txus Alday (gitarra), Iñigo San Cristobal (bateria) eta Alvaro Heras (baxua). **Gustuko dute:** 60 eta 70eko hamarkadetan ingelesez abesten zuten rock taldeak orokorrean; "The Clash", "Rolling Stones", "Ramones", eta abar. **Diskografia:** Disko bat

daukate, No Tomorrow disketxearen eskutik atera zutena; "Ladies and Gentlemen, The Painkillers" du izena. **Besteak beste jo dute:** Algortako Gwendolynen, Gorlizen, Madrilen, Bartzelonan... **Hurrengo kontzertuak:** maiatzaren 4an Leonen eta 16an Villa de Bilbao-n. Udan, oraindik data zehatzik gabe, Madrilen eta Gasteizen joko dute. **Hizkuntza:** Ingelesez abesten dute. m

Harremanetarako: 94 460 37 10 Alvaro

diskoak

Gran fuerza
Astrud
Austrohungaro-Chewaka



Bikote honek berriro ere harritu gaitu. 1999an "Mi fracaso personal" euren lehen diskoarekin askoren atentzioa bereganatzea lortu zuten. *Freaky-popeko* hamar abesti bikainekin datoz. Astrudek hogeit musikoen orkestarekin grabatu ez ezik Madelman edota Vanguard bezalako laguntza jaso du.

Lovers live
Sade
Epic / Sony



Zazpi urte abeslari handi honi buruz ezer jakin gabe iaz egindako biraren zuzeneko disko batekin datorkigu. Nigeriako abeslari honek soul garaikidearen ikonoa bilakatu da. Hamahiru kantek Saderen kontzertuen magia gordetzen dute, bere ibilbideko abesti esanguratsuenak bilduz.


Gailu
Metak
Kutxa Beltza



Izen honenpean Metak diskoetxeak ikusentzunekeo egitasmoa kaleratu berri du. Mikel Abregok (Bap!, NG) konposaturiko kantuek eta Luis Andre (e-judo) bideo errealizatzailearen irudiak bat egien dute. Formatu berezia duten lanak, esperimentazio lanak... Kolaborazioak: Anari, Javi P3Z...

Jose Angel Iribarnegarai > Kafe Antzokiko kidea

“Guretzat euskal kulturgintza ardatz eta helburu da”



Jose Angel Iribarnegarai Bilboko Kafe Antzokiko oholtzan

Bizkaian, musika areto ospetsurik baldin badago, hori, zalantzarik gabe eta merezimendu osoz, Bilboko Kafe Antzokia da. 1995ean atear zabaldu zituenetik, Euskal Herriko zein kanpoko puntako musikariak pasatu dira handik. Orain bigarren Kafe Antzoki bat zabaldu da Ondarroan. Gu, areto honen inguruan zertxobait gehiago jakin nahian Jose Angel Iribarnegarairekin elkartu ginen

—Zer da Kafe Antzokia?

—Kafe Antzokia, Zenbat Gara elkarteak martxan jarri zuen orain dela sei urte. Kafe Antzokiaz gain gure elkarteak gune ugari besarkatzen ditu bere baitan; besteak beste Bilbo Hiria Irratia (96.00 FM), Umegunea, “Zaparrada” gaztegunea... Beste zenbait proiektu ere martxan dugu. Ondarroako

herrian martxoaren 23an Arrigorri Itsas Osatua zabaldu dugu eta honekin batera, Ondarroan bertan Kafe Antzokia zabaldu da. —Zenbat lagun sar daitezke Bilboko Kafe Antzokian? —Kontzertuetara 700 lagun sartzen dira. Gehiago ere sar daitezke, baina kontzertu bat erosotasun gutxienekeo batekin ikusi eta gozatu behar da. Bestela, gaugiroan eta horrela mila ere sar daitezke. Ondarroakoan, kontzertuetara, 500 bat. —Noiz hasi zineten kontzertuak eskaintzen?

—Ireki zen egun berean. Gurean izan zen lehen kontzertua Kepa Junkerarena izan zen. Geroztik, egundaino bai kantari eta talde euskaldun guztiak eta mundu mailako musikari eta talde garrantzitsuenetariokoak pasatu dira bertotik. Normalean kontzertuak ostegun, ostiral eta larunbatetan egiten ditugu.

—Zer motatako musika eskaintzen duzue?

—Estilo ezberdineko musikariak pasatu dira Kafe Antzokitik. Euskal Herriko kantari, talde eta doinu desberdinak; bestetik, rock eta pop estiloetatik hasi eta klasikoraino, blues, jazz, folk, ska, reggae, tradiziozko musika. Eskaintza benetan zabala da. —Zeren arabera aukeratzen dituzue taldeak? —Euskal kultura bultzatzen saiatzen garen neurrian, gure hilabeteroko programazioa eratzeke orduan, euskal taldeek erdia baino gehiago betetzen dute; gainerakoa, kanpoko taldeek. Euskal taldeek sarritan izaten dituzte arazo ugari kontzertuak baldintza duinetan emateko. Alde horretatik, guk aukera, eta babes bat eman nahi izaten diegu Bilbo erdian baldintza egokietan jotzeko, beren lanak aurkezteko. Guretzat, euskal kulturgintza ardatz eta helburu da; sustatu, lagundu eta, behar denean, babestu nahi dugu. Eta beti ere, kalitate artistikoari erreparatzen saiatuz.

—Orain arte zein dira eskaini duzen kontzerturik arrakastatsuenak?

—Kontzertu arrakastatsuak asko eta sarritan izaten ditugu; nahiz eta arrakasta guretzat ez den bakarrik kopuru aldea. Aurtengo denboraldia oso indartsua izan da. Arra-

“Artista guztiekin harreman berezia sortzen da eta denak joaten dira gustura”

kastatsuenak jende aldetik begiratzuz gero asko dira. Euskal taldeei dagokienez Ruper Ordorika, Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Fermin Muguruza, Mikel Urdangarin, La Polla... Kanpoko taldeei dagokienez, beste hainbeste, hileroko hogeitakaldi baino gehiago izaten baititugu. Blues Explosion, The Jayhawks, Maceo Parker, eta zerrenda luze bat. Artista guztiekin harreman berezia sortzen da eta denak joaten dira gustura. m

Afrika sakonean

Gonzalo Iribarnegarayk berak eta bere neskalagunak Bostwanan zehar egindako bidaiaren kronika osatu du **“Un mes en Bostwana”** liburuan



Botswana ezagutu nahi duenak aukera bi ditu; hara joan edo, 15 euroren truke, Gonzalo Iribarnegarayren liburua erosi, bera bertan egon baitzen orain dela urte eta erdi. *Un mes en Bostwana* getxoztar honek argitaratu duen lehenengo liburua da. Eta bidaia ez zuen edonola aukeratu; bere neskalaguna eta berak nora joan erabaki aurretik gauza asko kontuan hartu zituzten: “*Lehenengo eta behin segurtasuna aztertu genuen, Afrikako herrialde askotara joatea oso arriskutsua izan daitekeelako. Bigarren baldintza hizkuntza izan zen. Guk ingelesez badakigu eta Botswanan konpondu zaitezke ingelesez. Herrialde polit baten bila genbiltzan, baina ez genuen leku turistikorik nahi. Hau guztia aztertu ondoren, Botswanak baldintza guztiak betetzen zituela ikusi genuen. Oihana eta basamortua gurutzatzeko GPSa eta mapak eraman genituen eta, beraz, ez zegoen galtzeko arriskurik. Gure beldur handiena, autoari zer-bait gertatzea zen*”. Zorionez, ez zen horrelakorik gertatu, nahiz eta ezusteko bat baino gehiago eduki zuten. “*Lehoiak, hienak eta beste hainbat pizti gugandik hurbil ibiltzen ziren askotan. Iparraldeko gatzeko basamortua gogoratzekoa da; Euskal Herria bezain handia den basamortu zuri hau*



Goian, Fernando Iribarnegaray; ondoan, liburuan ikus daitezkeen bidaiko irudiak

zeharkatzeko bi egun eman genituen eta denbora horretan gatzza baino ez genuen ikusi; zaratarik ez, animaliarik ez eta, zer esanik ez, pertsonarik ere ez. Bakardadea zen nagusi eta polita izan arren, beldurgarria ere bazen”. Bizipen hauek guztiak eza-

“Lehoiak eta beste hainbat pizti gugandik hurbil ibiltzen ziren askotan”

gutarazteko, idatzi zuen *Un mes en Bostwana* Gonzalok. Orain bere bigarren lana prestatzen ari da, baina oraingoan ez da bidai liburu bat izango, eleberri bat baizik. *Tiempos turbulentos* deituko da eta udarako kalean egotea espero du. ^m

Un mes en Bostwana
Fernando Iribarnegaray
Muñoz Moya editores
15 euro



BOTSWANA

- Hiriburua: **Gaborone**.
- Hiri nagusiak: **Francistown, Molepolone, Serowe**
- Azalera (km²): **581.730**
- Biztanle-kopurua: **1'3 milioi**
- Dentsitatea (bizt/km 2): **2'2**
- Hizkuntza ofiziala: **Tswanera eta ingelesa**
- Moneta: **Pula**



Perfumeak eta usainak

Fernando Mijangosen eskutik

Perfumeen eta usainaren mundura hurbiltzeko biderik zuzenena da *Usainak eta perfumeak: literaturarik kimikara*, Fernando Mijangos Ugarte Getxon bizi den ikerlariaren liburua. Mijangos EHUko Kimika Fisikoa Sailean aritu da lanean irakasle modura. 1982an doktore-gradua lortu zuen, azkeneko urteetan Udako Euskal Unibertsitateko ikastaldietan parte hartu du eta hainbat artikulu eta liburu argitaratu ditu. Azkeneko honekin, *Usai-*

nak eta perfumeak, perfumearen historia eta horren inguruko istorioak kontatzeaz gain, teknikagoak diren kimika fisikoaren eta fisiologiaren ikuspuntuak ere adierazi nahi izan ditu Fernando Mijangosek. Liburua irakurrita, irakurlea usainaren eta perfumeen mundu liluragarriaz txundituta geratuko delakoan dago Fernando Mijangos. Liburua Udako Euskal Unibertsitateak argitaratu du eta dagoeneko salgai dago, 20 euro. ^m

liburuak

Sisifo maite minez
Laura Mintegi
Txalaparta



Denok maitemindu gara inoiz. Eta badakigu maitasunak erotu egiten gaituela. Maitemintzeak muturreko egoeretara eramaten gaitu. Heroizidaderik handiena eta miseblekeria lardazgarriena egin dezakegu maiteminaren aitaziaz. Maitemina, pasioa, desira, gabezia, antsia, hutsunea... Banaka hartuta arriskutsuak diren sentimenduak dira, baina lehergarriak izan daitezke denak batera agertzean...

Mentura dugun artean
Alberdania
Anjel Lertxundi



Idazlea irakurle amorratua da edo nekez izango da idazle. Bi lanbide horiek ditu hausnargai-gai Lertxundik literatur saio honetan, idazle lana eta irakurle lana. Literaturaz egiten du gogoeta autoreak eta literaturaz gogoeta egitea, bizitzaz gogoeta egitea da. Orri hauetan irakurri daitekeenez, idazketa bezain ekintza sortzailea da irakurketa; plaza berean elkartu behar dute biek literaturaren miraria gerta dadin.


esaterikbadut

Esti Ezkerra

Irakurzaletasunak gora egin du

Euskal liburu ganberakoei irakurketa ohitura neurtzea otu zitzaien iaz eta zenbait inkesta, dei eta dena delakoak egin ostean (inkesta orok jarraitu beharreko gutxieneko arauak bete ez izana ezin zaie aurpegiratu), pozpozik agertu ziren orain dela aste batzuk komunikabideen aurrean 1999tik hona irakur zaleen kopurua nabarmen igo dela esanez. Inkesta txoroetan galdu beharrik gabe, niretzat metroa izaten da irakurketa neurgailurik onena. Bidaia eramangarriago egitearren, liburu baten konpainia aukeratzen dutenen artean berehala antzematen da zeinek irakurtzen duen obligazioz eta zeinek plazer hutsez. Ikasi beharreko gai edo hizkuntzaren arabera batzuek Elkarreko liburuxka zurien aldeko apustua egiten dute, ingelesa hobetzeko Penguineko klasikoak baino hoberik ez dago, literatura klaseetako dekalogoak ez aipatzeagatik! Plazerrari lotzen zaizkionen artean best-sellerrak dira nagusi: Stephen King, Danielle Steel, Rosemund Pilcher, Ken Follet... Noizean behin ezustekoak ere egoten dira; aurrean duzun mutilak Kafka duela eskuartearen oharzen zara eta hori irakurtzera derrigortuta egoteko itxurarik ez du. Alabaina, azken hilabeteotan ez King, ez Elkar eta ez Penguin. El Nervión bihurtu da metroaren bidaide nagusia. Baina nolatan hori? Txutxu-mutxuei erabateko garrantzia ematen dien eta debalde banatzen den egunkari batek, zelan hautsi dezake hain erraz gurearen moduko herrialde jantziaren literatur ohitura? Inkestetako letra txikia ez irakurtzea-gatik hartzen ditugu horrelako atsekabeak. ^m

webgida



BIZKAIKO TRAFIKOA >www.bizkaimove.net

Egia esan, beti-beti ez dute asmatzen, baina asmatzen dutenean hainbat haserre kenduko dizkizute. Bizkaiko Foru Aldundiak martxan jarritako sistema honen bitartez A8-an gertatzen denaren berri izango duzu, bai zure ordenadorean edota zure sakelako telefonoan. Web orrialdea erdipurdikoa da (teknikoezia eta pisu handikoa), baina SMSen bitartez ataskoei muzin egitea primeran dago.

Hizkuntza: gaztelania. Agian, izango du nonbait euskarazko edizioa, baina webgunea arakatu ostean, guk behintzat ez dugu aurkitu.

BUBER EUSKAL ORRIALDEA > www.buber.net/buber

Bias Pedro Uberuaga (lagunentzat, Buber) euskara eta Euskal Herriari buruzko lehenengo webgunea sortu zuen. Bertan, euskal gizarte eta kulturari buruzko informazioa batzen da.

Hizkuntza: ingelese/euskara/gaztelania/frantsesa

HERZIGOVA ETA SARE-ARTEA > www.dactylfilms.com

Animazio bitxi eta ikusgarriak topa ditzakegu webgune dotore honetan. Flash teknologiaren bitartez eginak dira, hau da, nahitaez Flash programatxoa instalatuta izan behar da. Horren truke



Testuak: **Iker Merchán** / iker@merchan.com

DOMAIN NAME REGISTRATION: The Best Value, Service & Customer Support!

Quick, Easy & Reliable! Register www.YOURNAME.com with Domain Direct Today and Receive:

- Domain Forwarding
- You@YOURNAME.com
- Web Based Email
- Much More

[Click Here to Register or to Learn More!](#)

tu cows RESELLER | FRIENDLY

Wholesale Solutions for Resellers

Love WinZip? Try the NEW WinZip 8.1

Software Library Over 30,000 Titles & Reviews

Shop	Video Games
Books Computers Electronics Movies Music Software	Xbox Playstation PS2 Dreamcast Gameboy Gamecube N64

WorkgroupMail Mail Server 6.5.1

1 Cool Button Tool - Flash 1.6

This e-mail server can provide Internet and intranet e-mail.

Make Flash buttons for your site without using Flash.

Make an instant connection. With everybody.

Ikusi, probatu eta aldatu

Shareware programen bidez, erabiltzaileak erosi aurretik hainbat aukeraren artean **hauta** dezakete

Interneten badira milaka programa doan probatu daitezkeenak: Shareware etiketa-pean batzen direnak, hain zuzen ere. Hainbat programadore ezezagunen lanak zabalatzeko modu eraginkor bihurtu dira. Hau da, erabiltzaileok ez dugu erosi behar ezagutzen ez dugun programa bat, baizik eta Interneteko webgune berezietatik jaitsi, etxeko ordenadorean instalatu eta, erabili ostean, gure nahiak betetzen baditu, duen prezioa ordain dezakegu (normalean ez da asko izaten, eta programadore txikiak bul-tzatzeke modu ederra da).

Baina, zer gertatzen da ordaintzen ez ba-dugu? Denbora baten buruan, aplikazio hauetariko batzuk bertan behera geratuko dira. Beste batzuk, ordain dezagun me-zuak bidaltzeari ekingo diote. Dena dela, izorratzeaz gain beste aukera gaiztoagoa dugu: programa hauek erabiltzeko web-gune pirata batetik klabe bat jasotzea baino ez da behar (warez deritzoten web-guneetan, alegia). m

Non lortu sharewareak?
www.tucows.com; www.shareware.com
www.softonic.es

Zer ote da? PDF

Dokumentuak bere horretan bidaltzeko sistema

Web orrialdeak (hau da, HTML dokumentuak) informazioa hedatzeko modu errazena eta erosoena dira. Baina, dokumentuaren itxura mantentzeko ez dute balio. Hau da, edozein erabiltzailek daki Word-ekin testu txukun eta dotoreak aurkez daitezkeela. Baina web orrialdeetan ez dago jakiterik nola inprimatuko den sortutako testua: ordenadore eta nabigatzaile desberdinek web orrialde bera atzekoz aurrera inprima dezakete.

Horregatik, Adobek entpresak sortu zuen PDF formatua. Batez ere hiru abantaila ditu: edozein sistematan irakurri daiteke (Windows, Macintosh, Linux, sakelako ordenadoreetan...), bere horretan mantentzen eta inprimatzen da (ez da "usteltzen") eta gainontzeko beste formatuak baino espazio gutxiago behar dute.

Hori bai, PDFak ikusteko Acrobat Reader beharrezkoa da. Programa hau dohainik Internetetik ekarri, eta etxeko ordenadorean jar daiteke.

Nondik instalatu Acrobat Reader? www.adobe.com (erdi-ezkerraldeko txokoan)

aurkitudugu

Konparazioak



Irakurle anonimo batek irudi sorta hau bidali zigun eta aldizkarian atal berri bat egitea otu zaigu. Interneten irudi harrigarriak edo barregarrik topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian hilabetero argitaratuko ditugu.
aldizkaria@euskalnet.net

Konekta Zaitzez guneak UKn etorkizunarekin bat egiteko

Konekta Zaitzez Guneak (www.konektazaitzez.com) Eusko Jaurilaritzaren zerbitzuaren hel-burua euskal herritar guztiei Interneterako sarbidea erraztea da. Ordenagailu bat erosteko Eusko Jaurilaritzak eskaintzen duen 270 euroko dirulaguntza lortzeko nahiko da Euskal Herrian bizitzea. Horrez gain, informatika eta Internet nabigatzen ikasteko ikastaroak ere antolatu dituzte Euskal Herrian zehar zabaldu diren Konekta Zaitzez Gune ezberdinetan. KZ Guneek eskaintzen duten zerbitzu hau dohainik da. Dagoeneko Bizkaian 14 zentro daude; horietako hiru Uribe Kostan, baina eskualdeko beste hainbat tokitan zentro berriak zabal-tzeko asmoa daukate. Orain ditugun hiruretan izena emateko edo argibideetarako, helbide eta telefono hauetara jo dezakezue:

SOPELANA KZ GUNEA

Gatzarriñe 2
LARRABASTERRA
& 94 676 24 77
tutor.sopelana@kzgunea.net
Erabiltzaileak: 411
Ordutegia: astelehene-tik ostiralera 9etatik 13etara eta 16etatik 20etara.

LEIOA KZ GUNEA

Sabino Arana 48
LEIOA
& 94 463 65 03
tutor.leioa@kzgunea.net
Erabiltzaileak: 1.570
Ordutegia: astelehene-tik ostiralera 9etatik 13etara eta 14etatik 20etara.

GETXO KZ GUNEA

Las Mercedes 13
AREETA
& 94 431 65 89
tutor.areeta@kzgunea.net
Erabiltzaileak: 1.051
Ordutegia: astelehene-tik ostiralera 9etatik 13etara eta 16etatik 20etara.



Jokuak sarean ¥
Txapelketak ¥ Internet ¥
Txat ¥ E-mail ¥ Lanak ¥

ETA AURRERANTZEAN

ordenagailuen zerbitzu teknikoa

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

% 94 676 00 62- Fax:94 676

Maiatzak 26



denon
laguntza
beharrezkoa da

Ibilaldiak
behar zaitu!

Euskararen alde
lan egiteko
prest bazaude
izena eman

¥ Ikastolan: 94 430 54 78

¥ Ibilaldiko dendan
Zabala Kalean
arratsaldean



TMEO aldizkariko azalak, guztiak oso adierazgarriak. Behean Kini, Simónides eta Orue, lan taldeko kideetako batzuk

TMEO umore independentea

Komikiaren **urrezko** garaia igaro ei da, gutxi dira gaur egun argia ikusten dutenak. TMEOkoek berriz, goiari eusten diote. Mundua ulertzeko beste **ikuspuntu** bat eskaintzen dute, jakina, politikoki batere zuzena ez dena

Komiki hau 1987ko udaberrian jaio zen, beraz, laster 15 urte beteko ditu. Hala ere, egileek ez dute urteurren hori ospatzeko ezer berezirik pentsatu. Urteurrenari baino gehiago, udako alean jartzen ari dira arreta orain TMEOko lagunek. Izan ere, udan aterako duten zenbakia 69a izango da.

TMEO Iruñean jaio zen, hangoak ziren eta komikigile gehienak, baina gero Gasteizera aldatu zuten egoitza. “Gutariko askok Iruñetik alde egin genuen eta bulegoa mugitzea erabaki genuen” kontatu ziguten. Harrezkero urte asko igaro dira eta harri-garria bada ere, TMEOn hasierako lan talde berberak darrai beharrean. “Aldaketak egon dira, jakina, baina hasierako gehienok jarraitzen dugu, jende berria hasi bada ere. Guztiira hogeit bat lagun gara”. Betiko lagun horien artean Jokin Larrea

eta Ernesto Murillo (Simónides), daude, hain zuzen ere, aldizkaria bataiatu zutenak. “Izena jartzeko hainbat proposamen atera ziren; gehienak lelokeria hutsak. Haien artean zoro hauek asmatutakoa aukeratu genuen”.

“Ez dugu inoiz inorengandik diru laguntzarik jaso, ezta onartuko ere”

Komikia egiten dutenen ustez, aldizkariaren ildo editoriala ez da aldatu 14 urte luze hauetan. “Inoiz ez dugu inolako iritzi-aurik eduki. Hemen bakoitzak nahi izan duena egin du beti eta horrela jarraitzeko asmoa daukagu”. Horrek, noski, ez die balio publizitatea edo eta dirulaguntzak lortzeko. “Ez dugu inoiz inorengandik dirulaguntza-

rik jaso, ezta onartuko ere. Salmentak eta publizitatea izan dira betidanik dirua lortzeko bide bakarrak”. TMEO bihilabetekaria da. Euskal Herri osoan zehar banatzen da eta baita Espainiako leku zehatz batzuetan. Gaur egungo tirada 5.000 alekoa da eta argitalpenaren arduradunek esan zigutena- ren arabera, beste hamabost urtez (gutxienez) jarraitzeko asmoa dute. Irakurleok eskertuko dugu. m



Nabarra izenez eta izatez

Nabarra **aldizkaria**, kolore aniztasuna, **euskara hutsean**, Nafarroatik egina, Euskal Herri osoari zuzendua. *Nabarra* barnetik ezagutzeko **Gontzal Agote** hilabetekari honen zuzendariarekin berba egin genuen

—Nola jaio zen proiektu hau aurrera ateratzeko asmoa?

—Gure hasierako asmoa Iruñerrirako euskal aldizkari bat egitea izan zen, jadanik beste beste herrialde batzuetan bazeuden horrelakoak. Baina ez genuen oso garbi ikusten Euskal Herriko beste hiriburuetan egiten zutena errepikatzea, nolabait Euskal Herria Irratiaren bitartez eremu hori landuta zegoelako. Hari horretatik tiraka, aldizkari kultural eta sozialago bat egitea interesgarria izan zitekeela ikusten genuen. Izan ere, Nafarroan eta orohar Euskal Herrian hilabetekarien arloan hutsune bat dago, salbuespenak salbu.

—*Nabarra*-ren lehenengo alean “inongo konplexurik gabe egina” zela idatzi zenuen. Euskal Herrian hainbeste konplexu al dago?

—Momentu horietan euskarak bizi zuen egoera oso gogorra zen eta bereziki Nafarroan, oraingoa ere makala ez bada ere. Euskaldunon artean bazegoen aurrera egiteko gogoia eta gu inori erantzuteko ez ginen sortu. Gure asmoa euskal komunikabideen mapa ahal den moduan osatzea dela esaten dugu inongo konplexurik gabe. Nafarroatik Euskal Herri osoarentzat eginikoa izateagatik ez dugu harrotasunean edo xumetasunean erori nahi.

—Zertan datza ikuspegi kultural eta sozial horren ekarpena?

—Hasiera batetik argi genuen herriz herriko kronika egitea ez zela gure asmoa. Horrek bultzatu gintuen kulturari eta gai sozialei erreparatzera. Gai sozialak jorratzeko orduan ikuspegi orokorrago bati heltzen diogu. Esate baterako, izatezko bikoteen afera, antimilitarismoa, sakelako telefonoen arazoa... Beti ere Nafarroako gaiei lehentasuna ematen



Gontzal Agote, *Nabarra* aldizkariko zuzendaria

“Hemen [Nafarroan] asko hitz egiten da Navarra eta navarismoaz eta guk aldarrikatu nahi izan dugu gure herrialdeko zati nabarmen batek euskaraz pentsatzen duela, pentsatu nahi duela eta gure hizkuntzaren aldeko jarrera daukala”

nez. Azken finean Nafarroatik ezagutzen den errealitatea maila politikoan euskararen kontrako jarrerak dira gehien bat. Baina hemengo euskal komunitateak eta hemengo jendeak egiten duena erakusten ez denez interesgarria iruditu zitzaigun Euskal Herriaren aurrean leiho hori irekitzea.

—*Nabarra* izenak non dauka sustraia?

—Hemen asko hitz egiten da Navarra eta navarismoaz eta guk aldarrikatu nahi izan dugu gure herrialdeko zati nabarmen batek euskaraz pentsatzen duela, pentsatu nahi duela eta gure hizkuntzaren aldeko jarrera daukala. Beste alde batetik, *nabarra* hitza kolore aniztasuna adierazteko ere erabiltzen

da. Modu honetan gure aldizkaria ere gai eta egitura aldetik kolore anitzekoa dela islatu nahi dugu. Alegia, zaletasun ezberdineko jendea asetzeko modukoa da.

—Apirilean urte bat beteko duzue. Beraz, dagoeneko zuen lehen pausoak emanak dituzue. Esan ohi da bidea pausoz pauso egiten dela, norantz doa zuena?

—Euskal Herri osora zabaltu nahi ditugu gure bideak. Orain arte duguna sendotu eta jende berriarengana iritsi, ditugun baliabide eskasekin. Azken finean hedatzea eta irautea dira gure erronka nagusia.m

Nabarra: 948 22 71 25
nabarra@nabarrerria.com

[uribertsoan barrena]

Ipar Uribeko bertso eguna

Bada, izan, Uribe Kostako bertsozaleok zeuon egutegietan markatu beharreko data bat (beste bat, alegia): maiatzaren 11a. Egun horretan bertso ekitaldi erakargarri bi antolatu ditu Algortako Bertsolari Eskolak Getxoko Udalarekin eta Ibilaldia 2002aren antolatzaileekin elkarlanean: BERTSOLARI GAZTETXOEN II. EGUNA eta IPAR URIBEKO TXAPELKETAREN FINALA.

Testuak, argazkiak eta dokumentuak: **ALBE**

Bertsolari Gaztetxoen II. Eguna

Ekitaldi honen lehenengo edizioa iazko maiatzaren 27an egin zen, Algortako San Nikolas plazan eta 17:30ean hasita. Orduko hartan, aukera eman zitzaien bertara hurbildu ziren haur eta gaztetxoei bertso pare bana paperean egin eta ondoren mikrofonotik kantatzeko. Lanaren ordain ogitarteko eta freskagarri bana eman zitzaizkien. Gero, Bizkaiko lau bertsolari gazte aritu ziren bertsotan: Fredi Paia, Arkaitz Estiballes, Iratxe Ibarra eta Beñat Gaztelurrutia. Bertso jaia oso polita izan zen. Aurtengoak ez luke iazkoa baino eskasagoa izan nahi. Horretarako, Getxoko Ibilaldiaren barruko ekitaldietan sartu dugu, ekimenarentzat aberasgarri eta indargarri suertatuko delakoan. Beraz, San Nikolas ikastolako ikasleok erantzukizun handia duzue egun honi begira. Ekitaldia San Nikolas ikastolan bertan izango da eta honako egitaraua prestatu dugu:

MAIATZAK 11 SAN NIKOLAS IKASTOLAN

• 12:00etan bertara hurbildutako haur eta gazteek prestatutako bertsoak entzun (gaiak aurretik emango zaizkie), bertso jolasak, lehiaketak, zozketak, bat-bateko bertsoak...

• 13:00ean bertosoaia. Bertsolariak: **Maialen Lujanbio, Fredi Paia eta Oihane Enbeita**.

Ekitaldi honen ostean, aukera egongo da inguruko jatetxeren batean bertso giroan bazkaltzeko.



Bertsolari Gaztetxoen Egunak berauen lana plazaratzea du helburu nagusi

Ipar Uribeko Txapelketa 2002ko Finala

Ipar Uribeko txapelketen historian laugarrena dugu gaurkoa, BEGI-BELARRI atalean ikusiko duzuenez. Aurtengo deialdiari inoizko erantzunik zabalena eman diote eskualdeko bertsolariek: 16 bertsolarik agertu dute txapelketa honetan lehiatzeko borondatea. Zerrenda luzeagoa izan zitekeen, bertsolari gehiago egon baitira prest parte hartzeko, baina antolakuntza ikaragarri astunduko litzatekeenez, aurrera egin da hamaseikote horrekin. Saio puntuagarrien atalean, pauso bi emango dira. Lehenik kanporaketa bi jokatuko dira, eta ostean finala. Alboan ekitaldi hauen egutegia duzue:

LEHENENGO KANPORAKETA
apirilak 26, barikua
Gatikako ARTXUBI jatetxean afalostean

BIGARREN KANPORAKETA
maiatzak 3, barikua
Lezamako GOITIOLTZAKO txokoan afalostean

FINALA
maiatzak 11, zapatua
San Nikolas ikastolako frontoian 19:00etan

Kanporaketen aurretik girotze saioak egongo dira bertso afarien inguruan. Girotze saioei buruzko xehetasunak antolatu ahala jakinaraziko dira.

«Maialen Lujanbiok ahalegin berezia egin du maiatzaren 11an San Nikolas ikastolako bertso egunera etortzeko»



Iturria: XDZ / Argazkia: Joseba Eloseg

Solaskidearen SOSLAIA

Ondoko test erako galderei zuzen erantzunez gero, Sustrai Kolinari buruzko xehetasun batzuk jakingo dituzu.

1) Non jaio zen Sustrai Kolina?

- a) Lapurdiko Urruñia herrian
- b) Zuberoako Ligi herrian

2) Zenbat kilo pisatzen zuela jaio zen Sustrai?

- a) 4,5 kg
- b) 3 kg

3) Zein dira Sustrairen lehen bi abizenak?

- a) Kolina Agirre
- b) Kolina Akordarrementeria

4) Zein zen Sustrairen txikitako ametsa?

- a) Pilotaria izatea
- b) Bertsolaria izatea

5) Zein pilotari du gustukoen Sustraik?

- a) Mikel Goñi
- b) Patxi Eugi

6) Zein bertsolari ditu eredu, bereziki, Sustraik?

- a) Sebastian Lizaso eta X. Amuriza
- b) Andoni Egaña eta Joxe Agirre

7) Euskal Herri mailako txapelik jantzi al du Kolina gazteak?

- a) Bai, 2000ko EHko Eskolartekoa
- b) Ez, baina 2001eko Nagusian finalista izan zen

Erantzunak: 1-a, 2-a, 3-b, 4-a, 5-a, 6-b eta 7-a



10ekotxikian Sustrai Colina

1) Gehiago ligatzen al duzu orain, Txapelketa Nagusiaren aurretik baino?

Ez.

2) Zerk kezkatzen zaitu gehiago une honetan, ikasketek, lanak ala nortasuna garatu beharrak?

Une honetan ikasketak bigarren plano batean utzita dauzkat, baina atzeregi ere ez ditut utzi nahi. Baina une honetan bertsoak erabateko dedikazioa eta kezka eskatzen dit.

3) Prentsa idatzian kolaborazioak egina zara. Jaso al duzu bestelako eskaintza profesionalik?

Eskaintza seriorik ez, baina komentario dexente bai. Dena den, ez d nondik aterako nukeen denbora.

4) Ega a-Lizaso, Iturriaga-Elortza, Arzallus-Kolina... bertsogintzan asko laguntzen al du bertso bikotea izateak?

Bai, ez da kasualitatea. Lagun erreferente bat izatea oso garrantzi da une zailei aurre egiteko eta une gozoetan hankak lurrean jartzeko. Nik konfiantza osoa dut Ametsengan eta bertso ibilbideak zerikusi handia du horretan.

5) Zein da gaur egun iparraldeko bertsogintzaren egoera?

Ez da txarra. Orain dela pare bat urte baino askoz hobeto gaude eta espero dut hemendik bi urtera baino askoz gaizkiago gaudela. Irakaskuntzan egin den lanak fruituak eman ditu eta emango ditu.

6) Nola imajinatuko zenuke Sustrai 25 urte barru?

Espero dut gaur bezain sano egotea, baina hori bai, pixka bat asentatuago. Suposatzen dut beste denak bezala ni ere zahartuko naizela.

7) Zein entzule mota duzu atseginen, erraz hunkitzen dena, edo entzule hotz hiperexijentea?

Bertsolariak denekin kantatzen jakin behar du. Denek dute haien xar zeinekin ari zaren dakizun momentutik.

8) I. ABRA sarian 8 bertsolari on lehiatuko dira: I igo Manzisidor Mantxi , Fredi Paia, Nerea Elustondo, Arkaitz Estiballes, Unai Agi, Arkaitz Ugartetxea, Ekaitz Goikoetxea eta Xabier Silveira. Zein jot duzu faboritotzat txapela lortzeko?

Horietako edozeinek jantzi lezake txapela. Maila altua dago gaur eg eta sariketa hori horren adierazle besterik ez da.

9) Algortan birritan kantatu duzu. Zer sentitzen duzu mendebalde urrunera etortzen zarenean?

Algortakoa gustuko plaza dut. Oso gaztetatik deitu ziguten eta oso baldintza onak eman dizkigute beti kanturako.

10)Horra lau oinak 8koa osatzeko: hoska - ozta - dosta — Uribe Kosta. Jo ta su aritu naiz / teklatuan hoska, galdereri erantzun / diet ozta-ozta; zuek ezagutzeak / poza emon dosta, agur irakurlea / ta Uribe Kosta.


BEGI-BELARRI

Uribe Kostatik Ipar Uribera

Uribe Kostako bertso txapelketen historia

Gure eskualdeko bertso txapelketen historia errepasatuko dugu labur-labur. 1994an egin zen Uribe Kostako lehenengo txapelketa. Lehenagoko testigantzak ere badaude, adibidez, bertso eskolen arteko txapelketaren batenak, baina datu gutxi daude eta, beraz, ez ditugu hemen aintzat hartuko.

1994



URIBE KOSTAKO I. TXAPELKETA 1994

1994koan 11 bertsolari lehiatu ziren. Kanporaketa moduko bat egin zen Algortako hainbat tabernatan, txikiteo giroan, eta finala bertako Bidebitarte txokoa jokatu zen, bazkalostean. Txapeldua Fredi Paia izan zen, bigarren Unai Elorriagak egin zuen eta hirugarren Iñaki Benito del Valle geratu zen, hirurak algortarrak. Antolaketan ALBEko lagunok ibili ginen, eskualdeko hainbat bertsozalerekin batera.



1997



URIBE KOSTAKO II. TXAPELKETA 1997

Hiru urteko etenaren ostean bigarren txapelketa. Bigarren honetan ez zen kanporaketarik egon eta saio bakarrera jokatu zen Algortako Barbarakobarri sagardotegian, bazkalostean. Etxahun Lekue larrabetzuarrak kendu zion txapela Frediri. Bigarren Xabier Paia geratu zen eta Fredi hirugarren. Epaile lanean, 1994koan bezalaxe, Andoni Iriondo, Trino Azkoitia eta Karlos Ibarzabal aritu ziren.



2000

IPAR URIBEKO TXAPELKETA 2000
Hirugarren edizio honetan Uribe Kostako txapelketa Bizkaiko Txapelketaren barruan sartu zen. Izen barria jarri zitzaion bertso eskualdeari: Ipar Uribe. Hiru azpieskualde hartu zituen: Uribe Kosta, Txorierrri eta Mungialdea. Aurretik girotze saio bi egin ziren: Sopelako Ander Deuna ikastolakoan Goizalde Atxutegi izan zen garailea. Leioako Betiko ikastolakoan, berriz, Aitzol de Castro nagusitu zen. Bertsolari xelebrearen saria Joanes Igeregi lortu zuen. Finala Algortako Zabala ikastetxean jokatu zen: Fradi Paia nagusi, bigarren Xabier Paia eta hirugarren Etxahun Lekue. Hirurak pasatu ziren Bizkaiko Txapelketako kanporaketara. Fredi finaleraino heldu eta bosgarren geratu zen Bizkaiko finalean.



Fredi Paia bertsolari Algortarra



Ipar Uribe 2000ko txapelketako zenbait une: 1- Asier Legarreta Mungiaiko bertsolaria. 2- Etxahun Lekue Larrabetzuarra. 3- Joseba Santxo aurkezle lanean Sopelako girotze saioan. 4 eta 5- Giroa eta entzuleria Leioako girotze saioan.

2002

IPAR URIBEKO TXAPELKETA 2002

Aurtengo txapelketa hau 2000koaren moldera antolatu dugu. Desberdintasunik handiena parte hartzaileen kopurua da, aurtengoan 16 bertsolari lehiatuko baitira. Horrek behartu gaitu finalaren aurretik kanporaketa bi antolatzen. Girotze saiorik ere izango da, baina ez dira izango orain dela bi urtekoak bezain arranditsuak. Ia-ia lagunarte mailakoak izango dira eta antolatu ahala emango dugu haien berri. Segidan zehaztuko ditugu aurtengo txapelketan lehiatuko diren 16 ipar uribetarren izenak eta baita antolaketan parte hartu zein hartuko duten beste batzuenak.

Bertsolariak: Xabier Paia, Etxahun Lekue, Josu Landeta, Gabi Basañez, Asier Legarreta, Miren Loizaga, Aitzol de Castro, Ekaitz Larrazabal “Katxo”, Jagoba Pereda, Alberto de Abajo “Zoro”, Pello Etxebarria “Bonbero”, Galder Bilbao “Txapi”, Unai Angulo, Ortzi Garitano, Miren Ibarluzea eta Iker Gangoiti.

Gai jartzaileak: Josu Esnaola, Nahikari Ayo, Ekaitz Herrero, Joanes Igeregi, Andere Arriolabengoa eta Goizalde Atxutegi.

Gai emaleak: Gatikako kanporaketan Joseba Uribarri eta Lezamakoan Asier Bilbao “Lehoia”. Finalekoa erabakitzeke dago, baina Josu Esnaola izan liteke.

Epaileak: Josu Arroyo, Pello Unzuñunaga, Patxi Gezuraga eta Jurgi Goikoetxea.

Ipar Uribeko txapelketaren arduraduna: Joseba Etxebarria.

Antolatzaileak: ALBE, Bizkaiko Bertsotale Elkarte eta beste hainbat talde eta bertsotale

Laguntzaileak: Getxoko Udala eta Getxoko Kultur Etxea

Kanporaketa bakoitzean zein bertsolarik kantatuko duen zozketa bitartez erabakiko da. Finaleko seikotea zein den kanporaketa bietako puntuek erabakiko dute. Fredi Paia, aurreko Bizkaiko Txapelketan finalista izan zenez, finalaurrekoetara pasatuko da artez. Eutsi goiari!

HIRUSTA



Bertsotartzailea
Iñaki Benito del Valle
Gaia
Ipar Uribeko Txapelketa 2002
Doinua
Iparragirre abila dela

1
Ipar Uriben bertso lehia da aurtengoan laugarrenez, gainera oso martxa sendoa hartua du zorionez. Lehendabizi zatika, Lezama zein Gatika, eta Algortan azkenez, maila altuko finala baietz, BBKan ikusi denez.

2
Zerbait aipatu behar da nonbait partaidetzari begira, helburu eta itxura askoko hamasei lagun guztira: gazte onak batetik, “Geko-eskola” bestetik, beteranoekin jira... irteten dena irteten dela, txapelketa nagusira.

3
Txapelketa hau jaio egin zen helburu argi batekin: bertsoa bere erroan hartu, gozatu eta irakin. Ez alde, ez kontrako, lehiakoak lehiako, hemen beharko da jakin inportanteena bertsoa dela, orain joan eta ekin!

[akabuko punte]

Maria Julia Pujana



Testua: Urtzi Iglesias Erretratua: Xabier Bilbao

Oingo onetan, Maria Julia Pujana Llonagas eon gara. Mari Yurre ondoko Arantzazun (Arratian) yaio sen 1926n. Urdulizen bixi ixen san gastetan, gero Galean emon euen urte asko eta oiñ Berangon bixi da. Oiñgo eta lengo gausen ganean eon gara beragas berbetan eta emen dekogus konta doskusan gausetariko batzuk.

—Non yaio sintzen, Mari? —Yurren, arantzasun. An arratian. Erre san etzen kontran eon san etze sarra, an yaio in nitzen, ogetasein, oktubren. Aitte isan san ango. Ama Katiken yaio ta Laukisen bixi san; baia kriada oten san ta aitte bearren Bilbon ta olan, antza, esetu siren. Es dot angorik eser bere gogoratzen. —Yurretik nora yon sintzen? —Gero txiki-txiki nasela Urdulisko parte, Butroire ailegaten, Butroiko kurtzen lelauko etzen; or asi nas. Ta Laukisko parten, aittitte amamak; aittitte ixen da gure aitte, se aitten irudi beiño es dekot, gaste ixen gintzen ta! Gaste ixen gintzen da ordun iñuxente eoten gintzen, es da gaurko les. Gaur gure txikerra ta dausen les es ta. Dana deukie gaur. —Baie gastetan seu bere olgetan ibiliko sintzen, esta?

—Olga asko es, se amari lagundu bear lanak eiten. Eskolara ta gero lanak eiten amari laguntan; amak soloan batzeusen gausak ekarten etzera, arrastegiten yoten gintzen basora egurren bille, se ikatzik esen gastaten txarri iltzen sanen olan baiño. —Baie oiñgo gaste deukiena diferente da. —Es dakit, beste ambiente bat deko. Guk es du euki gausarik... esebes. Se gu... len Olentzerorik be es gendun eukiten erregek baiño, ta erregen iriste san ba ogerleko andi bet. Guk es du euki jugeterik, olauko gausarik. Gero nire umek bere asko es deude euki baia geiatxoau deude. Oiñgok ya demasa da, eskiña dustiten daus ta danak gure. Bueno, se ingotzesu ba, beste bixi bat da ta, beste era bat. Nik ya esateot: “Neuri amak emon deus berak euki eun baiño geitzuau, ta ni neureri geitxuau ta oiñ bestek bere emon deiela geitxuau.

Non lotuko gare”. Mundu ona da desde luego itxiten duna guk, ona euki du baia ona itxiten du. Se ingotzesu ba. —Erromeriatara yoten sintzen gastetan? —Gitzi. San Juanera, Gastelugatzer bere bai, Martiorture San Antoniotan, Santa Luxi Luiure. Oiñes, andik basoatatik iten gendun, oiñes beti. Etzera gurupon itzultzen gintzen, beti lagunekas. Bixikletea gero belu-belunen euki gendun baie bixikleteas gitxi, se beste batzuk es euren eukiten...

euren tta ya eskastu in siren baia an pillo eon san. Ta eurekas an, eseuren Angelen etze esaten, beti ixte san Marin etzi; klaro a bearren ibiltesan baia Mari beti etzen, eon iñ bear eta. Emen Berangon bere eon sen soldaduk, Basauriti etorten siren, kamioik eta kamioik, kontrol barik. —An erderas beti, esta? —Gisona Butroiko bertoko san ta geuk euskera itte gendun baia kanpoko jente eote san les beti etzen... batzuk esateuskun kristiano

“Mundu ona da ‘desde luego’ itzitzen dun guk, ona euki du baia ona itzitzen du”

Baie es oiñgo les, gauben ta olan es. Ordun, asauenetik pere, uden, amabitik baiño beluau “ni soñar” ixten san. San Lorentzotan yon gintzen lelauko urte, yon nintzene Yatabera, asi yakun euri, a ixen san euri! Ordun bai goixeko ordu batak edo etor yakusen etzera etorteko, baia euriegaitik! Danak portale baten aterbe arten. —Gerra gasterik bixi sendun, esta? —Bai, gerre gaste garela ondiño ixen san. Ta klaro, etzetik urten in bear gendun, se botiki-

berbaitteko bere ta batzukas enfrenta nintzen ainbet bider: “Ni sues enas sartu esertan bere, ta su ni...” klaro eurekas erdera eitten gendun, baie geuk gure arten euskera beti, bai gisonak eta bai amak. Umek erdera, danak erdera. —Oin eskolan ikesten dan euskera diferente da, ulertuten dosu? —Bai, ondo. Eskolan asi sanen gixajoa (loba) telefonotik deituteusten igual: “Onek se esan gure deu amama? Bestea selan da?” ta berba bateas es neutzen ni konpuestoas... Telefo-

“Gaste ixen gintzen da ordun iñuxente eoten gintzen, es da gaurko les”

ñe imiñi ouskun, etze bi eon siren les alkarren ondon, urten in bear gendun. Se aldeatan etze bi olan aiñ... paraje gitxiten eoten dire; goien ta bean gu bixitzen gintzen, ta alboko taberne etze oso, ta an botikiñe...

Orti yon gintzen gu Martiorture, txabola batera sartu gintzen, ta an eon siren eun batzuk lelau edo jitanuren batzuk edo ta an atrapa gendun sarni, ta sarne garbitu esiñik gero. Ama ta yon sirenen: “Ene! Emen esin leike lotu, emen es dau sera baiño!” Ta yon gintzen Leioara, airtitten arriba batenara, Sutzure (oiñ a bere kanbia-kabiata dau). Or eon gintzen. —Ta gerra osten nora yon sintzen? —Eskondu eta euki nendun famili bere. Gero Galeara yon nintzen, an in doas otamabi urte. Gisonak iteseuen berton kanpon bear. Soldaduk bere an alderdi beten... ta an eiñ gendun geure sera. —Soldaduk eoten siran an? —Soldaduk tirora etorten sirenen, ta ostean be bertan pillo eon siren. Gero yon san kentzen, kanbieuren artilleri, infanteri-ta nasta

notik sarri iñ du sera. Oiñ ni baiño obeto eiten deu euskera baia. Diferente eta obeto, se libirun gausak guk es dekus. Ta libiruk dekos gausa asko diferente gugandik, diferen-tzia andi.

—Lehen yaten sana es da oin yaten dan modukoa, esta? Ser yaten sendun? —Alakoik es dau oiñ, sano san. Yaten gendun indabak... bueno, asko beres, se denboraik es eun eukiten amak, se oiñgo les lapikok eta esien eoten rapiduk. Guk, en general, ixeten san patatak o arrosa... ta gero talu; amak ei-teuna, morokille, urene talonas, ureas itxi otzituden ta goixen esne beroas bota katillu andietara ta a yan da eskolara. Faltan es du euki, sobra bere gausa asko es, baia faltan es. Gaurko les esan, okelea egun dustitan gaurko les es, arrañe geitxuau baia ori, antxoak, sardinak eta es lebatzak eta...

Lengo, sano san. Medikura nos yoten gintzen gu? Medikura bapes, gripe fuerte bateas lotu nintzen yateko gana barik eta ordun. Amari es dot ikusi medikurik etorten iños. m

Gureberbakere⁹ ZELAN ESAN

Testua: **Xabi Bilbao**

Norberan buru zeozer iteko zelan opetzi’, eta garikori’ zelan eskatu zeozer ez iteko.

Zéozzer iteko opétziten:

Náuk (néuk) ékarkot yánari. Náuk ekar nei yánari. ékarkot nik yánari? Gúre dozu nik ékarte yánari? Náuk ékarkot, gure bádozu.

Baietz erantzuteko:

Bai, májo! / ederto! Mesede itzela íngostezu! égiten diñozu? Eztakixu zélan eskértukotzuten! (eskertuko dotzuten) Bai, eskértukotzut. Bai, gure bádozu. Bai ba, ízu ba (egizu ba).

Ezetx erantzuteko:

Ez, itxíxu, eztau bérrixenik³. Ez, egon lasai, náuk ingot. Ez, eskértuten dotzut, baia ez. Ez, eztekozu zetan iñ hori. Ez, pentza bérez, náuk ingot.

Zeozer ez iteko eskátuten:

Mesedez, éz / ézu ekarri yánari. Ez, nik enauke hori íngo. Bestala ezpádozu hori íten. Gúrau dot ezpádozu íten hori. Kontuz, ez iñ hori e? Pentza bérez! Ez iñ hori gero e!

Adibidek:

*-Gure bádozu, nik kanbiakotzutez hórrek entxúfek.
-Ez, egon lasai, géitukotzet elektrisisteri.
-Bai mutil, léhengusu dekot elektrisíste, ta ha beharren⁴ ikúste dakit nik!
-Eskértuten dotzut, baia gúrau dot elektrisístek in dáien.*

*-Banau kantzáta piano yóten. Gúre dozu errekadu bátzuk íten yon náiten?
-Bai? Eztakixu zélan eskértukotzuten!
-Bai, ta bide batez albóke eskátukotzet Juleneri, apur bet praktikateko.*

BERBA BARRIK

1. **opetzi:** eskaini.
2. **gáriko:** gainerako.
3. **bérrixen:** beharrian.
4. **beharren:** lanean.

Euskara ikasi dute

GORKA BIURRUN



—Non ikasi zenuen euskara?
—Ni Donostian jaio nintzen eta han euskaraz ikasi nuen baina Getxora heldu nintzenean, eskolan matrikulatu ninduten eta ikasitako guztia galdu egin nuen. Urte batzuk beranduago AEKn hasi nintzen.

—Zergatik AEKn?
—Aukerarik onena iruditu zitzaidan, giroagatik, lagunak han nituelako... 1995ean hasi nintzen eta 2000n bukatu.

—Zerk bultzatuta ikasi zenuen euskara?
—Gurasoak erdaldunak diren arren, euskaltzaleak dira eta nik beti sentitu dut euskara nire hizkuntza dela.
—Zer da gehien kostatu zitzaizuna?
—Ez dakit..., subjuntiboa agian.

—Zein da garai hartako zure oroipenik onena?
—Aian, Arantzan eta Zaldibin egin nituen barnetegiak. Niretzako ahaztezinak dira. Esperientzia berri bat izan zen eta primeran pasatu nuen.
—Gaur egun euskara erabiltzen duzu?
—Bai, geroz eta gehiago; lagun euskaldunekin, tabernetan eskatzeko..., ahal dudan guztia.
—EGA ere baduzu...
—Bai; iaz lortu nuen. Zaila izan zen baina azkenean lortu nuen.



Ezkerrean elkartearen logotipo berria; ondoan, logotipo zaharra

Bizarra Lepoan euskara elkarteak irudi berria izango du aurrerantzean

Urte luzeetan Bizarra Lepoanen irudia izan den “bizarduna” aldatzeko beharra ikusi zuen euskara elkarteak. Euskararen alde lan egiten duen elkarte honen kidea den Eneko Mezok azaldu zigun bezala, “Aurreko logotipoa zahartua egoteaz gain, apur bat tetrikoa iruditzen zitzaigun eta aldaketa behar beharrezkoa zela uste genuen”. Horretarako

lehiaketa antolatu zen eta 500 euroko lehenengo saria Jonan Berasaluze Bilboko marrazkilaria profesionalak eskuratu zuen. Guztira 11 lan aurkeztu ziren, denak kalitate handikoak, antolatzaileen esandakoaren arabera. Lehiaketa honen antolatzaileek erakusketa bat egiteko asmoa dute aurkeztutako lan guzti hauekin. m

Lehiaketara aurkeztutako beste irudi batzuk



Ekitaldi mordoa euskaraz



Maiatzaren 10ean kanta afaria egingo da Gotzon Mendibilekin

Bizarra Lepoan elkarteak hainbat jarduera prestatzen ari da hurrengo hilabetei begira. Besteak beste, orain jarriko dituzte martxan umeei zuzenduta dauden aisialdi ekintzak. Begirale talde bat sortu dute eta epe laburrean irteerak antolatuko dituzte. Lehenengoa apirilaren azkeneko asteburuan izango da, Barriara.

Umeak ez direnontzat ere zertxobait antolatu dute Bizarra Lepoan-eko lagunek. Apirilaren 18an, Arima Beltza taldeak joko du Irish Puben eta maiatzaren 23an Gorka Sarriegik. Maiatzean, baina Satistegi tabernan, Ramón Agirre blues jolea egongo da eta azkeneko kontzertua ere taberna honetan izango da, ekainaren 6an, Txuma Murugarrenen eskutik.

Beste alde batetik, maiatzaren 10erako kanta poteo eta kanta afaria antolatu dute Gontzal Mendibilekin. Parranda arratsaldeko 19:30etan hasiko da Baserri tabernan eta kanta afaria 22:00etan Algortako sagardotegian. m

Izen emateak eta argibideak: 94 491 43 57

Esaera zaharren txapelketa Sopelanan

Andoni Egaña zarauztarra eta Amaia Agirre billabonatarra izango dira aurtengo bertsolari gonbidatuak

Apirilaren 27an AEK-ko Nikola Euskaltegiak antolatuta, Esaera Zaharren Txapelketaren bederatzigarren edizioa egingo da Sopelanan. Urtero egiten den legez, txapelketa berak zati bi edukiko ditu; lehenengoa, eguerdian hasi eta bazkaltzeko ordura arte, herriko tabernetan eta kaleetan zehar izango da. Puntu gehien lortzen dituzten taldeak finalerako sailkatuko dira. Finala arratsaldeaz jokatu da Ander Deuna Ikastolan. Epaimahaian, AEK-ko koordinatzaile nagusia den Joxe León eta Iñaki Gaminde hizkuntzalaria egongo dira besteak beste. Andoni Egaña eta Amaia Agirre handiak izango dira aurtengo bertsolari gonbidatuak. Euren bertsoek erabakiko dituzte nortzuk diren aurtengo irabazleak. Sariak, urtero bezala, aipatzekoak; afariak laugarren, hirugarren eta bigarrenentzat eta asteburu oso bat nekazaturismoko etxe batean irabazleentzat. Honez gain, partehartzaile guztiek orogarri bat eramango dute etxera. Urtero bezala, aurtengo txapelketan, Algortako Bertsolari Eskolakoek eta hainbat tabernak eta jatetxek laguntzen dute. m

Argibideak: 94 676 48 76 / nikola@aeonet.net

[baicomment]



AURREKO alean esaten genuen moduan oso gutxi badira ere, badauzkagu eskualdean euskararen aldeko apustua egiten duten merkataria. Oraingo honetan Algortara joan gara eta hantxe topatu dugu Baserri taberna gobernatzen hasi diren lagun berriak. Euren karta berria euskaraz ere jarrita dute.

Baserri taberna / Telletxe, ALGORTA

[nocomment]



AREETAKO inguru honetan kaleetako seinaleetan euskarazko testuak sistematikoki ezabatzen dituzte.

KORRIKA 2003

Datorren urteko Korrika Zuberoan hasi eta Iruñean bukatuko da 2.000 kilometro egin ostean. Korrikaren 13. edizioa 2003ko apirilaren 4an hasiko da Zuberoan (oraindik erabakitze dagoen herri bate-tik) eta Nafarroako hiriburuan bukatuko da Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren. Guztira 2.000 kilometro korrituko dira Euskal Herrian zehar euskararen alde. Hilabete pare bat lehenago, otsailean, berotzen hasteko, Korrika kulturala hasiko da. Ekintza honen barruan, ohi bezala, kontzertuak, bertsolariak, antzerkia eta hainbat ekitaldi gehiago eskainiko dira.



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Lebatza

solomoa sagar saltsan

Hasteko saltsa prestatuko dugu. Horretarako lapiko batean oliba olio pitin bat eta berakatza bota, hauek urrez-tatu arte. Gero, gurin apur bat, tipula eta porrua oso ondo txikituak gehitu eta bigundu arte su txikian egin. Bigun-bigun dagoenean, sagar eta tomate zatiak bota eta sutan izan dena ondo egin arte. Gero koñak txorrotada bat eta arrain salda apur bat bota (ez badaukagu, saltzen duten kontzentratua erabil daiteke). Nik hau guztia lehenengo pasapuretik eta gero txinotik pasatzen dut. Lan gutxiago hartu nahi badugu turmixa erabili baina gero komenigarria izaten da atzera sutan, irakiten jarri saltsa, kolorea gal ez dezan. Bestetik, lebatza-solomoa labean oliba olio apur batekin egin behar da, 180°tan hamar minutu nahikoa da. m

osagaiak (hiru lagunentzat)
lebatza solomo bat ¥ hiru kipula ¥ hiru porru ¥ berakatza ¥ 120
sagar



itsaso arana / jolastoki-koa

Kaba

edari burbuilatsua

Kaben iraultza Josep Raventósek eragin zuen Kataluniako Penedés eskualdean joan den mendean. Codorniu enpresa ospetsuaren jabea zen gizon hau, eta bertako mahats motekin, frantsesek txanpana egiteko metodo berbera erabiliz (antza, Don Pérignon monjeak asmatua), edari burbuilatsu eta atsegina lor zitekeela ohartu zen. Handik gutxira modan jarri zen ardo hau Bartzelonan. Marka handien itzalean, Codorniu eta gero Freixenet, beste etxe asko sortu ziren Frantziako *chateaux*-en antzera. Gero ika-mika sortu zen: frantsesen ustez, Kataluniako ardo hau euren produktuaren lapurreta zen eta honen ondoren, kaba izena hartu behar izan zuen ardo honek Frantziakoetatik bereizteko. Gaur egun, Katalunian ez ezik, Arabako Errioxan, Mendabian (Nafarroa) eta Aragoan ere egiten dira kabak. m

JAKIN BEHAR DENA

- Beste mahats motak batzuk erabiltzen badira ere, honako mahats motekin lortzen dira kaba onak: macabeo, xael.lo, parellada eta chardonay.
- Behin sotoetatik atera ondoren, edan egin behar da, ez baita gordetzeko. Hala ere, baldintza egokietan gordeta, argirik eta berorik gabe, ondo irauten du.
- Kaba batek gutxienez 9 hilabete behar ditu egiteko, eta 30 hilabetetik gorakoa denean, *Erreserba handia* esaten zaio.
- Edateko koparik egokiena, txirula erako luzea eta estua da; beti behetik eutsi behar zaio.
- Botila zabaltzeko, kortxoari eskuarekin heldu, eta botila astiro biratu. Kortxoa kentzean ateratzen den soinuari korrokada esaten zaio.
- Bost eta zazpi gradu artean edatea gomendatzen bada ere, bederatzi gradutan be edan daiteke.
- Kabak azukre mailaren arabera desberdintzen dira: **Brut Nature** honek ez dauka; **Extra Brut**, 6 gramo arte litroko; **Brut**, 15 gramo arte; **Extra seco**, 12-20 gramo; **Seco**, 17-35; **Semiseco**, 33-50 eta **Dulce**, 50etik gora.

Areatxu

30 urtez sukalde lanetan



Areatxu txokoko kideetako batzuk

Areatxu Arrigunaga hondartzaren ezkerreko zatian deitzen diote eta handik atera zuten lagunarte honetako kideek beraien taldea bataiatzeko izena. “Areatxu” txokoa 1981ean jaio zen, taldeko 25 lagunek Algortako Gaztelumendi kalean areto bat erostea erabaki zutenean. Geroago oraindik primeran

dabilen industri sutegi bat erosi zuten jatetxe txinatar batean eta pixkanaka-pixkanaka leku atsegina bihurtu zuten aretoa. Gaur egun txokoak 38 bazkide ditu eta emakumezkoak zein gizonezkoak sar daitezke. “Ez dugu inolako diskriminaziorik egiten”, azaldu zigun Joseba Bueno, “Areatxu”ko presidenteak. m

Amamaren sekretuak

- > **ZOPA** oso gazia atera bazaizu, sartu lapikoan zilarrezko koilara bat eta gehitu baso bete esne, gero utzi egosten 15 minututan.
- > **GAZTA** garandua hobeto kontserba dadin hozkailuan, ur gatzatuan bustitako trapu batean gorde behar da.
- > **PATATA** frijituak bigundu bazaizkizu, sar itzazu labean tenperatura erdian hamar minutu.
- > **OSTRAK** ondo ireki ahal izateko, prestatu baino lehen izozkailuan sartuko ditugu ordu erdiz plastikozko poltsa baten barruan.
- > **EZTIA** pikorrik gabe kontserbatzeko azenario txiki bat sartu ontzian.
- > **BERBERETXOEI** hondar guztia kentzeko ur gatzatutan utzi ordu batzuetan.

Barrukoa Taberna



Telletxe 5

ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ?GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 43
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) 01
48990 NEGURI 87



I aki Bitxitegia


OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte T: 4302345

Algorta

VILLABOTAS

JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Espezialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33

Villaondoeta 2, ALGORTA



Janedan

urdaitegi

Adituak gapernik beriko eta
delicatesse produktuetan

Bidebieta, 4 behea
Tel. 94 676 58 79
SOPELANA

Alangobarri 10
Tel. 94 491 58 37
ALGORTA

PEDRO SUBIJANA

“Luis Irizar izan da nire maisurik onena”



Pedro Subijana, Akelarre bere jatxeko sukaldean lanean

Pedro Subijanak 54 urte ditu eta bizitza osoa eman du lapikoen artean. Txikitan sukaldari izan nahi zuela erabaki ondoren laster hasi zen ikasten Luis Irizar, Jose Ramón Elizondo, Paul Bocuse eta beste maisu handi batzuen eskutik

Donostiako *Maria Cristina*, Madrileko *Zalacáin* eta Tolosako *Idiakez* jatetxeetan kurrikuluma bete zuen eta 27 urterekin *Akelarre* bere jatetxea zabaldu zuen Igeldo mendian. Ibilbide luze eta arrakastatsu baten

hasiera izan zen. Geroztik berak eta bere jatetxeak sari ugari irabazi dituzte. Sukaldaritzaz gain, Pedro Subijanak beste hainbat lanbide ere ezagutu ditu; sukaldaritza saio bat dauka telebistan eta zazpi liburu argitaratu ditu.

Gu sukaldaria izan nahi zuen umearekin egon ginen eta hau da berak kontatu ziguna.

—Txikitan sukaldari izan nahi zenuen?
—Ez dakit zer izan nahi nuen, baina ziur esan dezaket orduan ezin nuela ezta imajinatu ere egin egunen batean sukaldari izango nintzela. Sukaldaritza txikitatik gustatu zait, baina ez nuen uste hain urrun helduko nin-

tzenik. Gainera, garai hartan lanbide hau ez zegoen ondo ikusita. Etxean, sukaldari izan nahi nuela esan nienean, ez zuten batere ondo onartu.

—Zergatik aukeratu zenuen lanbide hau?
—Nik, hasiera batean, medikuntza ikasteko asmoa nuen. Egia esan ez neukan batere argi zer egin nahi nuen nire bizitzarekin, zer izan nahi nuen, Madrilen Sukaldaritza Eskola bat zegoela jakin nuen arte. Horrek bizitza aldatu zidan. Ni inoiz ez naiz ikasle ona izan baina Sukaldaritza Eskolan gelako notarik onenak ateratzen nituen. Argi dago errazagoa dela zerbait ikastea gustukoa duzunean.

—Nor izan dira zure maisurik onena?
—Luis Irizar. Nire ustez bera izan da, inolako zalantzarik gabe, inoiz eduki dudana eta inork eduki dezakeen maisurik onena. Nik asko ikasi nuen haren aginduetara. Asko daki eta dakiena ondo azaltzen du gainera.

“Nik probatu, denetarik probatuko nuke, matxinsaltoak eta asunak ere dastatu ditut”

—Zelako harremana daukazu Arzak, Berasategi eta beste euskal sukaldari handiekin?
—Lagun onak gara eta oso harreman estua daukagu. Sarritan hitz egiteko elkartzen gara eta gauza asko egin ditugu elkarrekin.

—Zer da sukaldaritzak daukan txarrena eta onena?
—Onena, jendea alaitzen duela. Oso atsegina da norbera jendea pozteko gai izatea. Txarrena, ordu asko sartu behar direla, goizez eta gauzez, jaiegunetan eta zubi-egunetan. Izena lortu arte, sukaldaritza lan gogorra da inolako zalantzarik gabe.

—Zerbait egin behar izan diozu uko zure profesioagatik?
—Bai, noski; nik ere nire nekeak hartu behar izan ditut. Gauza askori uko egin behar izan diot. Adibidez, familiarekin eta lagunekin ezin izan dut nahi izango nuen beste denbora eman. Zorionez, gustura lan egin dut beti eta horrek arazo hauek gainditzen lagundu nau.

—Euskal Herriko sukaldaritza berria ala

betikoa; zein duzu nahiago?
—Euskal sukaldaritza ona; berdin zait bata zein bestea, ona baldin bada.

—Ondo jaten da Euskal Herrian?
—Oso ondo. Kanpora ateratzen garenean konturatzen gara horretaz.

—Zure jatetxean, zein da jendeak gehien eskatzen duen platera?
—Nirea bezalako jatetxeetan, jende gehienak guk gomendatzen dieguna aukertzen du, sarritan zaila izaten da-eta plater bat zer den jakitea.

—Zein da zure platerik gustukoena?
—Oro har eta garaia baldin bada, txipiroiak saltsan ditut gustuko, eta nik asmatu ditudanen artean, izugarri gustatzen zait prestatzen dugun lupina piperrekin.

—Eta zer ez zenuke sekula jango?
—Nik probatu, denetarik probatuko nuke. Matxinsaltoak eta asunak ere probatu ditut.

—Egia al da *Akelarre*-n I+G (Ikerkuntza eta Garapen) lan talde bat daukazula?
—Bai; jendea hona datorrenean, gauza berrien bila dator. Horrela izanda, guk bi hilero gure eskaintza goitik behera aldatzen dugu eta gure I + G lan taldeak gogor egiten du lan hori posible izan dadin.

—Zer egin behar da norbait ahotik konkistatzeko?
—Giroa eta aurkezpena oso garrantzitsuak dira. Aukeratutako lekuak atsegina izan behar du eta mahaia ondo antolatu behar dugu. Saiatu behar dugu beti bestearen gustuak ezagutzen, platerekin asmatu ahal izateko. Horrez gain, nik gauza asko eta kopuru txikitan aurkeztea aholkatuko nuke. ^m


udondo
taberna
zatoz!

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

EREAGA
Bidaiak
Autobusak

T: 94 453 08 16 - 609 405 988
GETXO

GOIZEAN



Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak -

Ordu a Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

GAVRKO



GIZONENTZA -
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

BEROGAILU ETA ITUR -



T: 430 53

HIRURAK

Sarrikobaso 15

Iturgitxi

luxuzko erretegia

Hitz bakar batean definitu beharko bagenu *Iturgitxi* jatetxea, bikaina dela esan beharko genuke... eta labur geratuko ginateke. Leku ederrean kokatuta, jatetxea zoragarria da kanpotik zein barrutik. Harria eta egurra gustu onak batu ditu han. Kanpoko lorategiak eta terrazaren zabaltasunak harritzen gaitu, eta barruan luxua da nagusi. Abegikorra, polita..., nork esango luke orain dela 15 urte errota zahar bat zela *Iturgitxi*. Bere hiru jantoki erraldoietan (ezkontzak ospatzeko bereziki prestatuak) ia 500 lagun sartzen

dira. Mahaian eseriz gero, Miguel Lara, eskarmentu handiko sukaldariaren platerak dastatu ditzakegu. *Iturgitxi*-n okela eta arraina txingarretan dira espezialitateak. Kokotxak edo txuleta eder bat jatea gomendatzen dute hango langileek. *Iturgitxi*-n euskal sukaldaritza berriak ez dauka lekurik. Hemen betiko janaria eskaintzen dute. Hori bai, ondo prestatua eta ondo zerbitzatua. m

ASADOR ITURGITXI / Itxas-bidea 12, Berango
Batez besteko prezioa: 30-36 euro
Astelehen gauez itxita
Erreserbak: 94 668 12 86



Jatetxe izan baino lehen, errota izan zen *Iturgitxi*

barrak



Argazkian, Manu Torralba

Taberna Berri

pintxo bat jan giro atseginean

Algortako Sarrikobaso kalean dagoen taberna zabala da hau. Sokak, korapiloak, flotagailuak, kanpaia txiki bat eta mota guztietako itsasontzien maketekin apaindurik, lekua, berria eta handia izateaz gain, dotore jarrita dauka Manu Torralba jabeak. *Taberna Berri*-k bi urte baino ez dauka, baina denbora horretan ospe handia lortu du bere pintxo gozoei esker. Igande eta jaiegunetan 15 pintxo mota ezberdin eta bereziak prestatzen dituzte hango tabernari saiatuek. Itsaskia daukaten pintxo ezberdinak eta sandwich bereziak dira

estimatuenak, Manu Torralba jabearen us-tez. “*Otarrainxka daukatenak etxeko espezialitatea dira, eskatuenak eta landuenak*” azaldu zigun Manuk. Berak eta bere lankideek egunero egiten dute lan jo eta ke tabernako barra luzea ondo hornitua egon dadin. Hau beraien eguneroko lana den arren, igandeetan pintxoaren eskaintza handiagoa izaten da. Mokadu gozo bat dastatu nahi duenak badauka nora joan.

TABERNA BERRI
Sarrikobaso 4 (Algorta)
Telefonoa: 94 4

Erosketa etxera eroaten dugu!!

Ugari

supermerka -

ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00
17:30-21:00

Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:30

Gatzarri e 94 676 19 99LARRABASTE -

Egunkariak

prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34



zure **dirulaguntza**
behar-beharrezkoa
dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo
aldizkaria@euskalnet.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

irabazi bi lagunentzako bazkari bat GARDOKI Jatetxean



Nor da?

- *Nafarra da; Oletakoa. 53 urte ditu.*
- *Txantrean hasi zen dokumentalak egiten.*
- *Zinean hasi baino lehen irakaslea izan zen.*
- *Zine zuzendaria da. Sei film zuzendu ditu.*

> Aurrekoaren erantzuna: Juanma Bajo Ulloa
> Irabazlea: **Lourdes Albizua* (Plentzia)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean
bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
aldizkaria@euskalnet.net / faxa: 94 491 58 31

Gardoki

Jatetxea



Mendieta kalea 47

Sopela

Telf. erreserbak: 94 676 07 61
astelehenetan itxita

Errotalde

ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA?MARI?GETXO

Loteria

Sopela

Iparagirre 6, Sopela

BATIZKRISTALDEGIA



Y BDRIERAK

Y GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN

Y IPILUERRALDOIAK

Y INSTALAZIO OROKORRAK

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)

T:94 430 69 42 /ALGORTA

CALENDOS

RIKI

UMEAK - GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543



TXIBERRI

edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

[horoskopoa]

URA t  (Abenduak 21 urtarrilak 19) Zure buruak arreta pixka bat gehiago eskertuko dizu, azkenaldian nahiko baztertua baitaukazu. Ez gehiegi kezkatu bestiek esaten dituzten gauzekin, norbera nahi duen bezala bizitzeko libre da.	OTSOA t  (Urtarrilak 20 otsailak 18) Hain materialista izateari utzi eta zure ingurukoek eskertuko dute. Horrela, duela hilabete batzuetako pertsona ikusiko dute: oinak lurrean dituen pertsona alaia, eta ez orain zaren pertsona arraro eta urduria.	ADARRA t  (Otsailak 19 martxoak 20) Lanean serioago hartu beharko zenituzke gauzak, bizitza ez baita eguneroko festa. Oinak lurrean ipintzen badituzu aldaketa sakona sumatuko duzu. Hala ere, ez diezu zure ametsei uko egin behar.
AITZURRA t  (Martxoak 21 apirilak 19) Latza da bizitza, baina ez hainbesterako. Ez itzazu arazoak mugaraino eramán. Tentu handiz ibili eta onartu zeure akatsak. Aspalditik familiartean nagusi den giro txarra konpondu.	HOSTOA t  (Apirilak 20 maiatzak 19) Osasun arazo txiki horiek gaingitzeko garai egokia da. Ez zaizu gauza bera gertatuko diru kontuetan. Euroa erabiltzea ez da hain zaila, arazoa euroak gordetzean datza. Bizioak alde batera utzi.	EGUZKIA t  (Maiatzak 20 ekainak 18) Beti zuk egin nahi duzuna inposatu nahi diezu gainontzekoei eta horrek arazoak ekarriko dizkizu familian, lagunartean eta lanean. Horrela ibiltzeak kalte baino ez dizu egingo. Aldatzea zure esku dago.
GARIA t  (Ekainak 19 uztailak 18) Beharrezkoa zaizu aldaketak egitea esparru pertsonalean. Harremanak izatea oso garrantzitsua da; gizakia izaki soziala dela gogoratu. Oso momentu egokia da maitasun kontuetarako.	LASTOA t  (Uztailak 19 abuztuak 17) Tentsio handiko momentu askorekin egingo duzu topo hilabete honetan, baina lasai, indar nahikoa izango duzu hauek gaingitzeko, baldin eta umoretsu jokatzén baduzu. Gogoratu, umorea beharrezkoa da oso!	IRATZEA t  (Abuztuak 18 irailak 16) Aurreko egunetan eragin dituzun gaizki ulertuak euren kabuz konpontzeko joera izango dute. Errutinarekin apurtzeko beharra sentituko duzu berriro ere, kirolak edo beste ariketaren batek erakarriko zaitu.
META t  (Irailak 17 urriak 16) Maitasunarekin ezin da jostatu, maite zaituen pertsonari min emateko ez duzu inolako eskubiderik, bizitzak bi egun besterik ez baitu irauten eta pertsona hori, erne ez bazabiltza, ez da beti zure ondoan egongo.	HAZIA t  (Urriak 17 azaroak 15) Merezi duzun oreka emozionala lortuko duzu hilabete honetan eta horrek galdutako autoestima berreskuratzeko nahia piztuko dizu. Bidea ibiltzen egiten da eta zurea oso modu egokian garatuko da.	NEGUA t  (Azaroak 16 abenduak 20) Min ematen dizun horri ez horrenbeste bueltarik eman. Zure osasun mentalak eta fisikoak barne gatazka horri irtenbidea aurkitzea eskertuko dizute. Ez utzi denbora pasatzen eta hartu iniziatiba lehenbailehen. Lortuko duzu.



mun

g

ia

oKIN

degia

Algortan badaukagu

artisaunen ogia

izen eta jatorriz

da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu

obispoen guleria

probatu bada edo ez

dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 4301076

ALGORTA

Lur planeta. Lurreratzen. Zaren atala




Lurrean eman dudán lehenengo gaua porrot hutsabada izan da. 'Botelloi" batean parte hartzeagatik atxilotu naute. Ziegan sartu baino lehen polizia batek telefonoa erabiltzen utzi dit. Mikrofonoa belarrian eta aurikularra ahoan jarri ditut. Deia porrot hutsa izan da. Orain giltzapean nago. Bitakora koa deno kartzela oso esperientzia latza da, ia oinetako beltzak eta galtzerdi zuriak aldi berean konkintzen aizu?




...poliziak eskandalu publikoagatik atxilotu zuen arte. Zigor moduan hamabost urteko neska talde mozortu baten hitz gozo ak entzuten hiltzera kondenatu zuten. Berak kartzelán egotea egoera mental bat zela esaten zuen; norberaren gorputza giltzapean egon arren, burua libre hegaz egiteko gauza dela. Nire buru librearekin guardiaren poltsikotik ziegako giltzak hartzen saiatu naiz, baina nire ondoan dagoen presoak nire kontzentrazioa hautsi du nire belarrian orgasmo berba xuxurlatuz. Leozer egin behar dut. Klip, koilara eta oheko malguki batekin zera e

Neurri gogorra hartzea erabaki dut eta presio soziala egiteko aso greba hasi dut. Horretarako, Gandhiren moduan, ezezko bihilaran diot arrautza ogiaz busti tzeari, eta entsaladako alinoa? kezka eskatu dut. Poliziaren erantzuna berehalakoa izan da eta izozki kamioi bat hamabost minuturo nire ziegaren paretik pasatzeko agi dua eman dute, kamiokoak zera esaten duen bitartean: hum... oia goxoa bainila hau, hum... txokolatea primerakoa da, hum... Tentaldia saihestu dut nire belarriak apio batekin esalaz. Gaitz luzea izango delakoan nago. Azkenean, egun berriarekin batera aske



harrapatuko zaitut! izozkigile madarikatu alua!





jarraitu ko du...



Galtzontzilo lasterketa historikoa

1977ko Portu Zaharreko jaietan gaude, **goizeko bostak** dira, laster, herriko lagunarteak antolatuta, **munduko** lehenengo galtzontzilo **lasterketa** hasiko da...

...oraindik zutunik mantentzen diren gehienak poz-pozik dabilta. Gaur egun inork ez du gogoratzen norena izan zen lasterketa berezi hura (Getxoko historian lehenengoa) antolatzeko ideia baina bat-bateko gauza izan omen zen, Kepa Urkiza, goiko argazkiaren egileak, kontatu digunaren arabera. Bera han gertatu zenaren lekukoa izan zen eta aldi berean, lehenengo lasterketa haren

irabazlea. Garai hartan *Egin* egunkarian egiten zuen lan Kepak eta Portu Zaharreko jaietako argazkiak egiteko ardura zeukan. Horregatik inork baino gehiago korritu behar izan zuen, izan ere, helmugatik partehartzaile guztien argazkiak atera behar zituen. Guztira hogeitabat lagun izan ziren lasterketa berezi hartan parte hartu zutenak. Argazkian, korrikalari horietako batzuk. ^m



Itxas-gane dantza taldea 1965

Elantxoben 1965eko San Pedro egunean hartuta dago goiko argazkia. Taldeko neskak ere bertan zeuden nahiz eta argazkian azaldu ez. Dantza talde honek hiru urte iraun zuen eta urte hartan, 1965ean hain zuzen ere, desagertu zen, ez jarraitzeko gogorik ez zutelako, baizik eta orduko giro politikoagatik. Hileta batean –Aita Felix de la Virgenenean– dantzariak gonbidatu zituzten. Hilkurta euren artean pasatu zenean, ohizkoa zen moduan espatak altxatu zituzten dantzariak. Atzetik garaiko agintariak zetozen eta orduan, nahita, dantzariak espatak jaitsi zituzten. Hori zela eta, taldeari isuna ezarri eta dantzatzeko baimena kendu zioten.

Zutunik: Patxo Zarraga, Juan Antonio Ato, Iñaki Sarria, Joseba Bueno, Luis Saitua, Jaime Ato, Gamboa / **Belauniko:** Joseba Elorriaga, Tomás Lekanda, José Ignacio Franco

AITOR GOROSABEL > Su ta Gar

“Komunikabideei kasu larre-
gi eginez gero, zapaltzailea
maitatzen eta zapaldua
gorrotatzen bukatuko duzu”



Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat...
Lotsatia.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?
Nahiko perfekzionista naiz. Agian ez da akatsa, baina onerako edo txarrerako, horrelakoa naiz. Eguneroko gauzetan mania bat ere badaukat, ixten ditudan ate eta leiho guztiak berriro begiratu behar ditut itxi ditudan ziurtatzeko.

Maiz errepikatzen zaizun ametsa...
Etxe bat agertzen zait beti eta jendea ere, udaleku edo gaztaroko denborak gogora etortzen zaizkit amets horietan. Agian, nostalgia izango da.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat...
Kalean lagunekin jolasten, neba-arrebekin.

Zein da gehien miresten duzun pertsona?
Gurasoak. Aita, duela gutxi hil zaidana, eta ama.

Zer da pertsona batengan gehien baloratzen duzuna?
Zintzoa izatea, naturala izatea, azken finean norbera izatea.

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?
Gauza polit asko esan dizkigute, zorionez txarrak baino gehiago...

Zein komentariok egin dizu kalte gehien?
Niri amorru handia ematen dit zerbait egin dugula esatea, guk egin ez dugunean. Agian benetan guk egindako zerbaiti buruz txarto hitz egiten dutenean ere ez da oso gauza alaia, baina benetako zerbait da, ez asmatutakoa.

Zein da zure libururik gogokoena?
Gustura irakurri nuen *Kutxidazu bidea*, *Isabel*, eta 14 urte nituenean *El Perfume*-k nahiko markatu zidan. Hala ere, ez naiz inoiz irakurle ona izan.

Abestirik gustukoena? Aerosmith-en *Father* abestia.
Edo Ruper Ordorikaren edozein kanta.

Eta film bat? *Bajarse al moro*.

Zein lema eginen zenuke zeurea? Malcom X-en
“Hedabideei kasu larriegi eginez gero, zapaltzailea maitatzen eta zapaldua gorrotatzen bukatuko duzu”.

Zertan edo norengan sinesten duzu? Nigan, gugan.

Zerk ematen dizu beldurra?
Lagunak eta inguruko jendea galtzea.

Nork edo zerk egiten zaitu zoriontsu? Inguruan benetan maite nautenek eta musikak. m

AITOR GOROSABEL—. Euskal Herriko heavyaren aita kontsideratua. Eibarren jaio zen 1970ean. Musika odolean darama. Gurasoak, musikariak eurak ere, betidanik animatu dituzte euren seme-alabak mundu honetan murgiltzera. Ikastolatik ezagutu zituen Borxa, Xabi eta Asierrekin batera *Su Ta Gar* taldea sortu zuten. Taldeak urte mordoa daramatza euskal panorama musikalean, hainbat gorabehera jasan ondoren. Oztopoak oztopo *Jo ta ke* kantuarien oihartzunak bizirik dirau gure artean. Belaunaldiak aldatuz doaz, baina beti izango dugu *Su Ta Gar* taldearen ziztada hori gure barrenean.

I. ABRA saria

euskal herriko bertsolari gazteak

Andres Isasi Musika Eskola [Areeta - Getxo]
Apirilaren 20an larunbata 19.00 etan
Iñigo Manzisidor "Mantxi" [Zarautz]
Fredí Paia [Getxo]
Unai Agirre [Hernani]
Arkaitz Estiballes [Galdakao]
Xabier Silveira [Lesaka]
Nerea Elustondo [Legazpi]
Arkaitz Ugartetxea [Mallabia]
Ekaitz Goikoetxea [Beasain]

Gonbidapenak:
UK Aldizkaria
Albe
Kultur Etxean
eta Txarteldegian

